**Herriko bestak**

Azpilkuetan eta Lesakan

DONEZTEBE → 33IAT zentroa udan
zabaltzekoa da**ERATSUN/EZKURRA → 36**Makiak lurperatuak izan
ziren inguru hauetan**LEITZA → 40**I. korto lehiaketa
Gaztetxeak antolatuta**ARRAIOZ → 45**Nafar Mendi
merkatalgunea zabalik

137 langileetatik 56 botatzeko espedientea aurkeztu du enpresak

Erabaki horren kontra, mugagabeko greba egiten ari dira langileak ekainaren 16az geroztik. Zuzendaritzak hartutako erabakiaren atzean enpresa deslokalizatzeko asmoa ikusten dute langileek, «produkzioa Txinan eta Indian Savera Groupek dituen bertze lantegietara bideratuz» eta zentzu horretan, «krisiarekin, deslokalizazioa egiteko sekula-


ko aitzakia bilatu» duela gaineratu dute. Kontuan hartzekoa da Savera Group taldekoa dela Funvera ere, eta Savera-ko EEKak aitzinera egingen balu, Funvera eta Savera lantegien artean ia 200 lanpostu deseginen dituela taldeak Baztan-Bidasoan, aldi bateko langile eta langile finkoen artean.

BERA → 26**Iñaki PERURENA** | Harri-jasotzailea**ERREPORTAJEA → 4-5****Peru-harri museoa
zabaldutako
Perurenatarrek**

Gorritenean baserria hiru solairuko museo bilakatu du Iñaki Perurenak eta horrekin batera, baserri inguruko zelaietan eskultura ikusgarriak egin ditu. Euskal Herriko historia azaldu nahi du Leitzako harri-jasotzaileak Peru-harri museoan.

**ELKARRIZKETA → 3****'Nafarroa bizirik nahi
dugu' manifestazioa**

Larunbatean Iruñean egingen den manifestazioarako deia egin du Garbiñe Elizegik.

**KIROLIZKETA → 52****Oihan Larretxea bikain
aizkoran**

Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketan 23 urtez azpikoen txapela jantzi du berriki.



NAFAR MENDI

merkatalgunea

Arraioz | Baztan



2010eko ekainaren 23a

EGUN BEREZIA NAFARROAKO MENDIALDEAN

BAZTANGO ARRAOIZen, **NAFAR MENDI / HIPERSIMPLY** MERKATALGUNEAK
BERE ATEAK ZABALTZEN DITU GAUR

20 000 PRODUKTU BAINO GEHIAGO HIPERMERKATUAN:

Janari freskoak, egunean egunekoak, eta prezio apal-apaletan
Taberna pintxoekin, jatetxea, dendak, txiki-park eta gainera
LEKUKO GASOLINA MERKEENA!!!



Ongi etorri Baztan, Bertizarana, Malerreka, Bortzirriak, Leitzaldea

NAFAR MENDI ZUEN ZAIN DAGO BESOAK ZABALIK

Nafarroa Mendialdeko merkatalgune berria: **MUNDU BERRI BAT**

Hainbat proiekturen kontrako Nafarroako 13 plataforma elkartu dira eta *Nafarroa bizirik nahi dugu* lelopean, manifestazioa deitu dute larunbat honetarako, ekainak 26, Iruñean.

Deitzaileen artean daude Lekarozko Aroztegia proiektuaren kontrako taldea eta Amaiur-
ren egin nahi den ofita harrobiaren aurka Amaiurko herria. 13 taldeek elkarlanean egin

eta deitu duten lehen ekimena da manifesta-
zioa, baina gerora gehiago egiteko asmoa dutela adierazi digu Garbiñe Elizegi Aroztegia... eta gero zer? plataformako kideak.

Garbiñe ELIZEGI | Aroztegia... eta gero zer? plataformako kidea

«Herriaren indarrarekin edozer gauza geldi daiteke»

G. PIKABEA | BAZTAN

Hainbat proiekturen kontrako taldeak elkartu zarete. Zein da helburua?

Elkartze honen helburua gure ahotsa entzunarazi eta indarrak metatzea da. Azken finean, kasu guztietan gidoi bera errepikatzen da: Nafarroako hainbat erakunderen babesarekin proiektu irrazionalak inposatzen dira. Proiektu hauek aitzinera eramaten diren herrietan agintariak herriaren zerbitzura egon beharrean enpresaren txontxongilo bihurtzen dira.

Nola joan da prozesua?

Orain dela hilabete batzuk hainbat plataforma edo taldetako jendea elkartu ginen hausnarke-ta bateratu bat egiteko. Hortik, elkartzen gaituen ezaugarri ugari zeudela eta, denon artean manifestu bat egitea lortu genuen. Gure ekimenei abiapuntu bat emateko manifestazio jendetsu bat egiteko beharra ikusi dugu.

Nafarroak azken hamarkadetan izan duen garapenarekin kezkatuta zaudetela diozue...

Nafarroan azken hamarkadetan ezagututako ingurugiroaren eta jendar-tearen aurkako erasorik larrienak jasaten ari gara. Adibideak pilaka dau-de: Itoizko urtegia, Kaste-joneko termikak, Lizarral-deko Goi Tentsioko Li-



UTZITAKO ARGAZKIA

Garbiñe Elizegi, larunbateko manifestazioa iragartzen duen kartela gibelean duela.

nea, Baztango Aroztegiako pelotazo-urbanis-tikoa, AHTa, Olaztiko errauskailua, Zilbetiko har-robia, Amaiurko harro-bia... Guztiz jasanezina eta suntsitzailea den ere-dua da. Proiektu hauek eredu ekonomiko honen ondorio zuzenak dira. Ba-
kar batzuk aberasteko gehiengoaren eskubideen urraketa eta diru publi-koaren lapurreta erabili-tzen da.

Nafarroa bizirik nahi du-gu leloa aukeratu du-zue. Zer ari da pasa-tzen Nafarroan?

BI PROIEKTU BAZTANEN

«Bi proiektu hauek –Aroztegiakoa eta Amaiurko harrobiaren egitasmoa– gure lurra eta herriaren aurkako erasoak bezala senti-tzen ditugu. Herri galdeketa egin ziren bi herrietan eta herriak nabarmen agertu ziren proiektu hauen aurka. Udalak, berriz, inposizioaren bidez aitzinera era-man nahi ditu»

Nafarroan gertatzen de-na ez da kasu isolatu bat. Zoritzarrez eredu ekono-miko hau mundu guztian zabaldua dago. Bakoi-tzaren ardura da bere to-kiko gehiegikeriak geldi-tzea ahal duen bezala eta elkarlanean. Nafarroan, bai Nafarroako Gober-nuak, bai udalerrri gehie-netan ere eredu hau bul-tzatzen da. Honi demo-krazia eza, herrialde mai-lako komunikabideen zentsura eta manipula-zioa, eta herri mugimen-duen kriminalizazioa gehitu behar zaizkio.

Zein da manifestazioa-ren helburua?

Elkartzea, antolatzea eta mugimendu honi bultzada ematea. Hainbat era-gile eta sindikaturekin el-kartu gara eta erantzuna ona izan da orain arte, beraz, manifestazio jen-detsua espero dugu.

Nola ikusten dituzue Amaiurko harrobiaren eta Aroztegiako proiektuak?

Bi proiektu hauek gure lurra eta herriaren aurka-ko erasoak bezala senti-tzen ditugu. Herri galde-keta egin ziren bi herrie-tan eta herriak nabarmen agertu ziren proiektu hauen aurka. Udalak, be-rriz, inposizioaren bidez aitzinera eraman nahi di-tu. Guztiz salagarria eta larria da Udalak tirania-rako duen joera eta he-rritarrenganako duen errespetu falta.

Proiektuak aitzinera aterako direla uste al duzu?

Zaila da jakitea hemen-dik aitzinera zer gertatu-ko den. Guk lanean segi-tuko dugu eta gure eskue-tan dagoen guztia eginen dugu proiektu hauek geldi-tzeko. Eta uste dugu gelditzea posible dela. Herriaren indarrarekin edozer gauza geldi dai-teke. Herritarrak antola-tzea eta elkarrekin lan egi-tea da erronka nagusia.

Elkarrizketa osorik: www.ttipi.net-en.

HARRIEN MUNDUA → PERURENATARREN ESKUTIK

Peru-harri: harriak ere mintzo diren tokia

Aspaldiko ametsa egia bihurtu du Iñaki Perurena harri-jasotzaileak Peru-harri museoa zabalduta

Leitzatik Uitzirako bide zaharrean dagoen Gorritenea baserriaren hiru solairuak egokitu, eta inguruko zelaietan egin dituen eskultura ikusgarriekin osatu du Peru-harri museoa Iñaki Perurenak. Euskal Herriko historia azaltzea du helburu, eta adierazi digunez, «gure kulturaren argi izpi bat egon daiteke hemen».

G. PIKABEA | LEITZA

«Europa zaharreko aztarna bizia, irauten duen aztarna gara euskaldunak. Erromatarak, zeltak, bisigodoak, gaztelarrak, frankoak, musulmanak... etorri dira, bakoitza bere intentzioarekin, baina lehengo herri zahar hura oraindik bizirik dago». Horixe da hain zuzen Iñaki Perurenak Leitzako Gorritenea baserrian eta inguruan zabaldu duen Peru-harri museoa azaldu nahi duena. Euskal Herriko historia, alegia.

Aspalditik dabil harrien munduan Perurena. 30 bat urtez harri-jasotzaile izan da eta oraindik ere ez ditu sobera baztertuak. Harriak «leiho eta kabi» izan dira Leitzako arentzat: «Leihoa, mundua harriaren bidez ikusi dudalako, eta kabi, babesa izan delako. Kaban gustura egoten da, eta harriaren munduak hori eman dit niri, dena: kokalekua, bizitze-

ko modua, ikusteko modua...». Eta harriaren inguruan zerbait egiteko zuen «aspaldiko ametsa» egia bihurtu du Peru-harrirekin. Zazpi urte behar izan ditu Gorritenea baserria hiru solairuko museo bilakatzeko, eta inguruan eskulturak, trikuharriak, zutarrak eta beste atontzeko. Eta guztia eskuz egin du: «egin duguna gure sosa eta lanarekin egin dugu», dio Perurenak.

ZORTZI METROKO HARRI-JASOTZAILEA

Inguruko zelaietan, besteak beste, harri-jasotzailearen omenez, ia zortzi metroko altuera duen harri-jasotzailearen irudia ikusi daiteke. Neurria da batez ere eskultura honi begiratuta atentzioa deitzen duena. Harri-jasotzailearekin batera, pixka bat beherago, Nafarroako azken marikasaren omenez egindako irudia dago, Pedorena: «Nafarroako



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Iñaki Perurena, zortzi metroko garaiera duen harri-jasotzailearen irudiaren aurrean.

benetako heroia da eta guztiz ezezaguna», dio Perurenak. Beso indartsu bat ere ageri da, soka batez harriari lotua dagoena. Eta honek mitologiari egiten dio erreferentzia. «Mitologiak dio Carlo Magnoren gertari

batek, Roldanek, hementengo mendi batetik Aralar-ko San Migeleko base-liza urratu nahi izan zuela. Eta sokarekin harria hartu omen zuen horretarako. Baina indar asko eman eta soka hautsi omen zitzaion», azal-

du digu leitzarrak. Harri-jasotzailearen, besoaren eta mariskalaren irudien bidez hauxe esplikatu nahi du Perurenatarak: «jentillen indarra, mitoen indarra, eta mariskalaren indarra». Beste eskultura bat ere badu:

HIRU ELEMENTU

«Barrengo indarra, jentillaren indarra eta mitoen indarra oraindik batzen direlako gaude harri-jasotzaileak»

Iñaki PERURENA
Leitzako harri-jasotzailea

DATUA

7

URTE

behar izan dituzte
museoa prestatu eta
zabaltzeko.

HARRIA LEIHO ETA KABI

«Harriak leiho eta kabi izan dira niretzat. Leihoa, mundua harriaren bidez ikusi dudalako, eta kabi, babesa izan delako»

Iñaki PERURENA
Leitzako harri-jasotzailea



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Perurena, Gorriteneko azken solairuan. Txoko hau herri kirolari eskaini dio eta modalitate guztiak bildu ditu.

trikuharriak gaineantxapela dutela. Eta hauxe du aitari eskaintako irudia: «nire aita beti txapelarekin ibiltzen zen eta gainera, txapelari beste esanahia eman izan diogu Euskal Herrian». Trikuharriarekin eta beste megalitoekin euskaldunok historian iraun dugula adierazi nahi du.

MAMIA BASERRIAN

Dena den, Museoren muina harrizko hiru solairuko Gorritenea baserrian dago. Beheko solairua, garai batean ukui-lua zena, plaza itxurarekin egokitu du Perurenak. Harri jasotzeko erakustaldiaren eta bideobaten bitartez ematen dituz hasierako azalpenak.

Lehenengo solairua «gure harrien mundua» dela esanez aurkeztu digu leitzarrek. Inaxio semeak umea zela jasotzen zituen harriak, gero-ra jaso izan dituzten harri haundiagoak, tekniko ki harriak izan duen progresioa, burdinazko harri bat, argazkiak... Hainbat elementu ikus daitezke solairu honetan, baita neolito garaiko harrizko aizkora bat ere, eta baseritik hurbil aurkituagainera: «badakigu neolito garaian hemen jendea bizi zela, baina gure baserritik 30 metrora aizkora hau aurkitzea zoragarria izan da», aitortu digu Iñakik. «Nafarroako Erresuma babestu zuten

gazeluen mapa, Antso jakitunaren garaiko Lingua Navarorum-aren kopia, Leitzari buruzko xehetasun batzuk eta euskal gizonaren makialak ere aurkituko ditu bisitariak», dio. Eta mutikotan margotzeko eta bertsotarako zuen zale-tasuna tarteko, margo eta bertsoak ere badira txoko honetan. «Hizkuntza indoeuropearren zuhaitz genealogikoa ere badaukat, baina hor ez dago euskara, euskara aurreragokoa delako», gaineratu digu.

Eta hirugarren eta azken solairua herri kirolari eskaini dio Perurenak: «Etnografia zentzu batekin, herri kirol modalitate guztiak daude hemen. Denak ere lanetik datoz, baserriko, mendiko, harrobiko eta gaueko lanetik». Bere hitzetan, «oso memoria txikia dugu, eta ez dugu gogoan garai batean horrela bizi zela jendea». Laburbilduz, «ganbaran, galdu den bizitzeko era bat dago».

Kanpoko eskulturez eta baserriko edukiez gain, karobia, katapultak eta leizeak ere bisita daitezke Peru-harrin.

POZIK ETA ILUSIOZ

Hitz gutxitan esanda, honela esplikatu digu Perurenak museoa: «Peru-harri eskenatoki bat da, eta historia bat azaldu nahi du. Hemen euskaldunon artean hiru ele-

BERTZELAKO EKIMENAK

ARGAZKIA: G. PIKABEA

Museo sarreran dago 1956tik 2009ra Leitzan egon den arkua.



Harrera egiten Lopeneko arkua

Leitzarrentzat aski berezia den arkua aurkituko du bisitariak museo sarreran: Lopeneko arkua. 1956an Lontxo Zubitur arginak –Iñaki Perurenaren emaztearen aitakegin zuen eta 2009an biribilgunea tarteko kendu behar zutela-eta, Peru-harria eramateko proposamena egin zion Perurenak Udalarari. Trukean, bi urtez sarrera dohainik izanen dute leitzarrek.

Gainerakoan, hau da **ordutegia**:

- Larunbat, igande eta jai egunetan 10:30etik 14:30era.
- Talde batek astez joan nahi badu 659 701045 telefonora dei dezake.
- Prezioa: helduek 3 euro eta haurrek 2 euro. Leitzarrek bi urteotan dohainik izanen dute sarrera.
- Museoa ikusteko bi modu: norbere kabuz joan eta buelta emanez, edo bestela, bisita gidatuak eginez.



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Pedro Mariskalaren omenez Perurenak egin duen irudia. Atzean, harri-jasotzailearena.

mentu: barrengo indarra, jentillaren indarra eta mitoaren indarra oraindik batzen direlako gaude harri-jasotzaileak».

Pozik dago eginda koarekin Perurena. Badaki egunero izanen duela zeregina: mantenimendulana dela, gastuak di-

rela, bisitak... Baina «gauza gutxirekin konformatzen garenez, oso gustura gaude». Eta etorkizunera begira Peru-harrik bizia izatea gustatuko litzaioke, «uste dudalak gure kulturaren argi izpi bat egon daitekeela hemen».

Momentuz, buruan dituen egitasmoen artean, Gorritenearen aurreko belardian, harri-jasotzailearen eskulturaren atzean, Euskal Herriko mapa bat egin nahi du, erliebe eta guzti. Baditu bai ideiak, baina baita eskua ere.

**Nire txanda**

Joseba URROTZ

Zerura begira

Ilargiak astrologian sentimenduak eta emozioak irudikatzen ditu, eta ez dira gutti beraren inguruan egin diren olerki, amets, kantu, negar eta maitasun adierazpenak.

Venus, berriz, edertasuna, gozamena, ugalkortasuna bezalako gauza zoragarrien irudi. Martek indarra eta adorea, Jupiterrek baikortasuna eta bertze planetek ere hainbat gauza adierazten dizkigute. Nire galderak: ez ote diogu gizakiok hain mezulari haundiei errespetua galdu, eta eskua sartu zakarki? 1959. urtean sobietarrek bidali zuten ilargira lehenbiziko zunda, eta geroztik auskalo zenbat tramankulu bidali diren planeta guztietara. Horrela, hain erra-nahi eder eta sakonak gordetzen dituzten planeta jainkotsu horien azalean txatarra puskak edo zapata errestuak uzten ari da gizakia haien birjintasuna urratuz. Akabo erromantizismo planetarioa!

Planeta jainkotsu horien azalean txatarra puskak edo zapata errestuak uzten ari da gizakia haien birjintasuna urratuz

Ezpala

Aitor AROTZENA

Ogia baino futbola nahiago

Saverako 137 langileetatik 56 kaleratzeko espedienteak aurkeztu du enpresak. Funtzionarioei soldata eta pentsiodunei pentsioa murriztu zaie. Ama langileendako laguntzak desagertu dira eta despidoa merketu. Ekainaren 29an greba orokorra deitu dute batzuk, iralaren 29an bertzeek. Hegoafrikan Futbol Mundiala. Realak berriz ere lehen mailara igan da (Aupa!). Zein ongi bizi garen!

Nabarmentzekoak

**Juana OSPITAL MIRANDE**
100 urte bete ditu Beran

Ekainaren 14an mende bat bete zuen Juana Ospitalek. Ortzaizen sortua, Elizondoko sagardotegia kudeatu zuen Lorentxo Errekart senarrarekin. Azken lau urteotan Beran bizi da.

**Ane BERGARA**
Futbol jokalaria beratarra

Superligak ihes egin bazien ere, Bartzelonako Espanyoleko neskek Erreginaren Kopa irabazi zuten futboleko. Ane Bergarak Rayoren kontrako finaleko lehen gola sartu zuen.

**Martin GOIKOETXEA**
Berako argazkilaria

Madriren izan zen, Gran Via karrikaren mendeurrenako ospakizunen barrenean antolatutako *Gran Via: El cielo sobre Madrid* lehiaketan, aukeratutako bertze 30 argazkilarirekin batera.

Atzera begira → 1998.06.18 / TTIPI-TTAPA 232. zbk



Nafarroako lehen ekomuseoa Zubietako errotan

Ekomuseoa egiteko asmoarekin, Zubietako errota zaharberritzen ari ziren 1998an. Lanak akituxek zeuden eta uztailan inaugurazio egiteko prest egon omen zen errota, Mikel Belarra Zubietako udal idazkariak errandakoaren arabera. Baserrietan erabiltzen ziren nekazaritza-tresna eta garai bateko erremintak erakutsi nahi zituzten. Horretarako eskaria luzatua zuen Udalak etxetik, ganbara bazterretan hauts artean erdi galduak zeuden tresnak museoan erakusteko, baina ordura arteko erantzuna kaxkarra izan zen. Halere, 12 urte beranduago, Zubietako errota bisitari aunitz erakartzen duen errealitatea da.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andueta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • **info@ttipi.net**

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellebea...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea

2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	37€	Europa	55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	31€
Ipar Euskal Herria	55€	Amerika eta Australia	123€	Leitza	15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak
diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 20 urte

Patri ARBURUA (Euskara teknikaria)

Ekainaren 12an, Etxalarko Kultur Etxean, bortz herrietatik etorritako 25 euskaltzale bildu ginen goiz osoko batzarrean. Aurten mankomunitateak 20 urte bete dituela aitzakia gisa hartuta, gogoeta txiki bat egitea zen asmoa.

Hasteko, mankomunitatearen sorreran parte hartu zuten hainbat eragileren testigantzekin osatutako bideoa ikusi genuen. Lekuko horiek adituta, argi dago 1990ean udalek mankomunitatea sortu bazuten aitzineko urteetan euskaltzale talde batek gogotik egingutako lanari esker izan zela. Zalantzarik gabe, premia handia dugu orduan euskararen alde lan egiteko izan zen izpiritua eta giroa berreskuratzeke.

Mankomunitatearen 20. urteurrena urte bereziki korapilotsuan suertatu da. Erakunde horren aurrekontuan inoizko murrizketarik handienak egin dituzte, eta gai horren harira eztabaida latzak izan dira. Etxalarko batzarrean hainbat ideia eta proposamen egin ziren epe laburrean egoera zail honetatik ateratzeko.

Garrantzitsuena, behar-beharrezkoa dela herritar euskaltzaleak mobilizatzea, mankomunitatea Bortzirietan euskararen aldeko lana egiteko tresna egokia dela aldarrikatzeko. Hogei urteotan gauza aunitz egin dira, eta horri esker gure hizkuntzaren egoera hobetu egin da. Mankomunitateak ere badu horretan zerikusia, eta gure eskualdean euskara normalizatzeko tresna egokia dela erakutsi du. Etorkizunean ere lan handia dago egiteko, eta horretarako tresna eraginkorrak behar dira. Horregatik da hain garrantzitsua mankomunitateak behar bezala funtzionatzeko behar dituen baliabideak izatea.

Eta ideia hori epe laburrean gauzatzeko bi bide aipatu ziren, ondoko hilabeteetan lantzeko gelditu direnak. Batetik, 20. urteurrena baliatuz, mankomunitatearen eguna antolatzea erabaki zen; helburua da herritarrak biltzea, erakunde hori Bortzirietan euskararen aldeko lana egiteko tresna egokia dela aldarrikatzeko. Bertzetik, beharrezkoa da –eta lehenbailehen egin beharrezkoa– mankomunitatean mugitzen diren eragile ezberdinen artean adostea behar bezala funtzionatzeko gutxieneko baldintza batzuk, eta horiek beti errespetatzea. Bi ideia zehatz, eta lan aunitz egiteko. Bortzirietako euskara batzordeen, herritar euskaltzaleen eta euskalgintzaren esku gelditzen dira.

«Mankomunitateak
behar bezala
funtzionatzeko
gutxieneko
baldintza batzuk
eragile ezberdinen
artein adostea eta
horiek beti
errespetatzea
behar beharrezkoa
da»

Futbola eta politika bereizi al daitezke bada?

Mikel RODRIGUEZ

Futboleko Mundiala bete-betean da dagoeneko. Gure herrietako ostatueta jende nahiko biltzen da edozein selekzioaren partidak ikusteko. Gehienak, seguruena, La Roja-k jokatzan duen egunetan bilduko dira. Aunitz dira gure artean La Roja-ren jarraitzaileak. Horietako aunitzek, ordea, erranen dute euren burua ez dutela espainol sentitzen, baina nahiago dutela La Roja-k irabaztea, azken finean, «hemengo» edo «gure» jokalaririk baitira. Bertze aunitzek, baina, espreski La Roja-k galtzea nahi dute, ez direlako espainolak, eta ukazioaren sinbolotzat baitute kamiseta gorridun selekzioa. Futbola eta politika nahastea mesprezuz leporatzen zaie azken

horiei. Baina, futbola eta politika bereizi al daitezke bada? Ezezkoan nago. Ezezkoan nago, politika denarekin nahasia baitago, politika ez baita nahasten, politika bizitza bera delako, kontzienteki edo inkontzienteki pentsatzen duguna, gertaeren aitzinean dugun jarrera, daramagun bizi eredu, eta ikuskeraren ezberdin horiek gizar-tean sortzen duten tal-ka eta elkarreragina. Eta, futbola, hori azaleratzen duen elementu bat gehiago baino ez da. Hegoafrikan, adibidez, futbola ez zen kirola bakarrik. Beltzen kirola zen nagusiki, eta errugbia, berriz, xuri-ena. Horregatik, apartheid-aren garaian, beltzek errugbiko selekzioak galtzea nahi zuten, erregimenaren sinboloa baitzen. Alemanian, Hanburgo hirian, ez da berdina Hanburg SV taldearen jarraitzaile izatea, edo Sankt Paulirena. Lehenbiziko taldea hiriko eskuinaren eta neonazien gurtukoa den bitartean, bigarrenak faszismoaren, arrazakeriaren eta sexismoaren aurkako jarrera klubaren estatutueta darama. Gure ostatueta itzuliz, berriz, La Roja-ren alde egotea hautu politikoa da, kontzienteki edo sarritan inkontzienteki hartzen dena. Azken finean, jokalaria madrildarrak, katalanak edo andaluziarrak «hemengotzat» edo «guretzat» baitituzte euskal futbolzale aunitzek, inkontzienteki bada ere, Mundialean «hemengo» ordezkaria La Roja dela barneratua dute. Zilegi da, legitimoa da, baina La Roja-ren kontra daudenek bezain bertze nahasten dituzte futbola eta politika.

«Euskal futbolzale
aunitzek,
inkontzienteki bada
ere, Mundialean
«hemengo»
ordezkaria La Roja
dela barneratua
dute. Zilegi da,
legitimoa da, baina
La Roja-ren kontra
daudenek
bezainbertze
nahasten dituzte
futbola eta politika»

Irakurleak mintzo

Musungo
familiaren
esker onakMiguel M. SAGASTIBELTZA
Musundarrak (Leitza)

Otsailak 28ko goiza ilun esnatu zitzaigun Musungo familiari, sute tamalgarri batek gure sortetxea eta senide Migelikoren bizitxe zena kiskali baitzigun. Bertan, Migelek bere ondatsun guztiak galtzeaz gain, inoiz berreskuratu ezin izango ditugun gauzak galdu genituen: aiton-amonen oroigarriak, bertako txoko bakoitzak ekartzen zizkigun oroitzapenak eta sortzen zizkiguten sentimenduak, ...

Baina geroztik dena ez da iluna izan, une horretan bertan, bai ondorengo hilabete hauetan herritarrek nahiz kanpokoek erakutsi diguzuen hurbiltasunak, maitasunak, laguntzak, ... hunkiturik gaitu, nola esker-tu ez dakigularik.

Hainbat lagun bildu eta batzorde bat antolatu zuten, ekimen ugari martxan jarritz: herrikirolen eta euskal kantuen jaialdia, kontu korronteak, ..., beren borondate onenez.

Hori dela eta, hitz hauen bidez, bestela ez baitugu modurik aurkitzen, eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera zuen laguntza eta elkartasuna erakutsi diguzuenei.

Goizago edo beranduago, baina argi dugu Musun berriro goian ikusiko dugula, eta hori

neurri batean zuei esker izango dela. Horrela ba, jakin ezazue guk bertako txoko bakoitzean zuen elkartasuna ikusiko dugula, eta zuek bertara begiratu eta harro egon zaitezketela, zuei esker izango baita hori posible.

Bihotz-bihotzez mila esker beti zorretan egongo garen Musungo familia guztiaren partetik.

Savera eta
Bortziriekiko
erasoa salatu
nahi duguKoldo SAENZ
Baztan-Bidasoako LAB

Gaur Bortzirietan, bertako langileria patronala eta Nafarroako Gobernuaren ikusmiran jartzen duen berri batekin ernatu gara; Berako Savera lantegiako zuzendaritzak 137 langiletik 56 kaleratzeko EREa aurkeztu du; plan-tilaren %40.

Zoritarrez hau bera edo antzekoa behintzat, orain urte erdi bititu genuen Funveran, Savera Groupe-ren barruan dagoena Savera bezala. Denak badakigu Funverako borroka nola amaitu zen; 47 langile kaleratuak Nafarroako Gobernua eta enpresaren erruz.

Urte erdi beranduago, aktore berdinek (Savera Group eta Nafarroako Gobernua), beraien ikusmiran jarri dituzte 56 langile, kalera-tze kalte ordain mini-

Konponbide bat nahi ta jai dugu hoiekin harritzekoa baina ez dabilta fin aspalditik dabilta hemen denak berdin eta ni ere bat nator nere herriarekin Sunbilko atarin bada hainbertze min ya konpondu ezin diot entzun dadin sarrera berria uain behar da egin.

Bide gurutze hontan hamaika istripu ta hori saihesteko modua aurkitu halere gobernuak ez du obeditu nahi duguna lortzeko borrokan segitu ez gaitu gaiditu hau ez da amaitu trafikoa gelditu protestak jarraitu obrak hainbeste bizi balio al ditu?



Bota bertsoa

Irati ARRIETA (Sunbilla) • Doinua: Betroiarena

Sunbillako bidegurutze berria

moarekin, eta aurreko bi ERE-tan langabeziaren zati handi bat jan eta gero; Nafarroako Gobernuak onartu zituen bi ERE eta langileek sufritu zituztenak.

ERE berri hau izugarritzko kolpea da Bortzirietako industriarentzat, momentu honetan arrisku larrian dagoena. Goitian aipatutako Funvera eta Saveraz gain, ezin ditugu ahan-tzi Zalain Transformados Grupo Condesa, Arcelor Mittal, Composites Gurea eta abar luze batetako langileak, patronalaren erasoaldi hauek jasaten ari direnak, Nafarroako Gobernuaren konplizitatearekin Bortzirietako desertu industrial bat bilakatzeraz daramatenak.

LABetik adierazi nahi dugu Bortzirietako bitziza sozio-laborala hiltzeko arriskuan dagoela, beraz, agente politi-

ko, sindikal eta sozial guztien erantzukizuna da Euskal Herrian aldaketa politiko eta sozialaren bidean lanean ari-tzea, Bortzirietako etorkizuna bermatzeko.

Nafarroako patronalak eta UPNren gobernuak *Navarra foral y española* baten aldeko apustua egiten dute, eta Iruñea-Logroño ardatz ekonomikoa indartu nahi dute, EAE-rekin harreman ekonomiko gehien dituzten eskualdeak (Sakana eta Bortzirietako) ahulduz. Sakana eta Bortzirietako langileek erakutsi dute erasoan aitzinean ez dutela burua makurtuko eta etorkizunean ere ez dute egingen.

Bukatzeko LABek elkartasuna adierazi nahi die Saverako langileei eta borrokarako deia luzatzen dugu, azken finean hau baita langile-

ek daukagun arma bakarra. Horregatik, egogearren larritasunaz jabeturik, denon inplikazioa beharrezkoa da aldaketa politiko eta sozialaren alde borrokatzeko, eta Saverako langileak jasaten ari diren erasoaren aurrean.

Amaiurko
Munon egin
nahi duten
harrobiaAmaiurko Herria
Julian REKALDE (alkatea)
Itziar ALEMAN (kargoduna)

Amaiurko Muno aldean ofita harrobi batendako zundaketak egin nahi zituztela jakin genuen; Udalak ez zion garrantzirik ematen,

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

ERROTARZAR
harategia
Bertako
produktuak
Eztegarra, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

KULTURA

NAFARROA → SARIKETA

Ikastetxeetako euskarazko lehiaketen hainbat sari etorri dira eskualdera

Olerkia, narratiba, etnografia, deklamazioan eta bertso idatzietan eman dira sariak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako ikastetxeetako 2009-2010 ikasturteko euskarazko lehiaketen sariak eman zituen ekainaren 4an Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariak, Alberto Catalanek, Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan. Aurtengoa lehiaketaren 21. edizioa izan da eta guztira 27 sari eman zituzten modalitate hauekin: olerkian, narratibaren bidez, bertso idatzian hamabi eta deklamazioan, irratigidoian eta podcastean,

hau da, Pedro Diez de Ulzurrun lehiaketan, hiru. Jose Maria Satrustegi etnografia lehiaketan ez zuten saririk eman.

Lehiaketetan guztira 1.556 lan aurkeztu ziren eta horietatik hainbat eskualdeko ikastetxeetatik bidalitakoak izan ziren. Aipatu, halaber, eman ziren 27 sarietatik 15 eskualdera etorri zirela.

BERTSOPAPER LEHIAKETA

Bertsopaper lehiaketan, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan, **Baztan Ikastolako** Oier Ariztegi Elizondok lortu zuen lehen saria eta Berako **Rikardo Baroja** ikastetxe publikoko Oier Larretxea Agirrek bigarrena.

Hirugarren zikloan, lehenbiziko saria Lesakako **Tantirumairu Ikastolako** Paulo Ramos Zumaldek jaso zuen, bigarrena Leitzako **Erleta es-**



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan banatu ziren sariak ekainaren 4an.

kolako Joanes Illarregi Marzolek eta hirugarrena ikastetxe bereko Beñat Altzelai Kanflankak.

DBHko lehen zikloan ere hiru sariak inguruko ikasleentzat izan ziren: lehenbizikoa Goizueta-ko **Andres Narbarte Xalto** ikastetxeko Ainhoa Zabaleta Iribarrenentzat, bigarrena Doneztebeko **Mendaur Institutuko** Beatriz Maritoren Ganboarentzat eta hirugarrena Berako **Toki Ona Institutuko** Xabat Matxikote Seinigan-ziararentzat.

DBHko bigarren zikloan, bigarren saria Berako **Toki Ona institutu**ko Ainara Etxabide Sagarzazu lesakarrak eskuratu zuen.

LITERATURA

Literatura lehiaketan, poesia arloan, Lehen

Hezkuntzako hirugarren zikloko lehenbiziko bi sariak Lesakako **Irain Ikastetxe** publikoko ikasleentzat izan ziren: lehenbizikoa Javier Elizalde Benitezentzat eta bigarrena Laura Prieto Garmendiarentzat.

DBHko lehen zikloko lehen saria, Berako **Toki Ona Institutuko** Naia-rra Martin Goia lesakarrak eskuratu zuen.

NARRATIBA

Narratiba arloan, DBHko lehen zikloko lehenbiziko saria Berako **Labiaga Ikastolako** Jaione Telletxea Mendi-gutxia lesakarrarentzat izan zen eta bigarren saria, berriz, **Arantzako Eskolako** Mikel Oteiza Almandozentzat.

IRAKURKETA ETA DEKLAMAZIOA

Irakurketa eta deklamazio lehiaketan, azkenik, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan, Leitzako **Erleta ikastetxe** publikoko 20 ikaslek osatutako Kuxkuxero taldearentzat izan zen lehen saria.

Sarituak diploma, trofeoa eta bonoak hartu zituzten ekainaren 4ko ekitaldian -125 eta 200 euro artekoa narratibaren, olerkian eta bertso idatzian; eta 500 eurokoa deklamazioan, lanaktaldeko egiten dituztelako eta DVD bat ere bai, saritutako obrek.

Ekitaldian, kontseilariak gain, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusia, Teresa Aranaz Jimenez, eta Euskarabideko zuzendari kudeatzailea, Xabier Azanza Arbizu izan ziren.



AUZOA extreme

Illekueta Auzoa
Altzale plaza ondoan
31780 BERA
Nafarroa

EKAINAK 25

IREKIERA EGUNA

20:00TAN LUNTX
ETA ERAKUSTALDIA

AUZOAN

SEGWAY

BIZIKLETA ALOKAIKIA

BUGGY'S

ZALDI PASEOAK

PAINTBALL

UR MOTORRA

RUTA 2CV

TREKKING

www.auzoaextreme.com

948 631 584
605 864 355



BESTIAK

2010

LESAKA
uztailaren 2tik 11ra

GORA SAN FERMIN!
borz-zud
IMPRESA - HOPISIERIA
948 631 521
material guttien ingimatsen dugu
hamarretan 2. speritueko artikuluen

Dia % Sanferminetan
otordu goxoak
prestatzeko
LESAKA LESAKAKO DIA
Dia % Plaza Berria, 10 - 948 637 335

TALLERES FRAIN
LESAKA Tel.: 948 637 525
Ongi pasa bestak!

Barceló
BIDAIAK
ONGI PASA BESTAKI
Plaza Zaharra, 4 • 31770 LESAKA (Nafarroa)
T: 948 638 179 • lesaka@barceloviajes.com

APITTU ALUMINIOAK
ongi pasa San Ferminak!!
Aluminiozko Leihoak, Kontraleihoak,
Ateak, Portxeak ibidurak eta
Barandilak
XIXO 626 312 326
JOSU 626 313 162
Otsango auzoa, 7 • Pab
T/F 948 638 297
apitu@apittu.com
31770 Lesaka (Nafarroa)
www.apittu.com



Pello Etxebeste

Ezpatadantzarien kapitaina

“Sanfermin Eguna
hagitz berezia da
dantzariontzat,
baina aldi berean
luzea eta gogorra
ere izaten da”

Pello Etxebestek 23 urte ditu eta Sanferminetan zortzigarren urtea beteko du ezpatadantzari: “Gaizka Sarasola kapitain zeneko azken urtean hasi nintzen, Mikel Irigoien kapitain zeneko lau urteak egin nituen eta berari erreleboa hartu eta azkeneko hiruetan ni izanen naiz kapitain” dio. Ttikitatik aritu da dantzan. “Haurra nintze-nean bi dantza talde izaten ziren, eta ni Iruinen aritzen nintzen. Gero, elkartu zirenean ere segitu nuen, 18-19 urte egin nituen arte, gauza sobera nuen eta utzi egin nuen dantza taldea. Baina Lesakakoa izanik, ezpatadantzari izateko ilusioa nuen eta hori ez nuen utzi, egun hori hagitz polita da”.

Pello beti dantza munduan murgildua egon bada ere, Lesakan ezpatadantzari aritzen diren gehienak ez omen dute halako formakuntzarik: “Azken urteetan sartzen diren gehienak ez dute inoiz ere dantzatu, ez dakite jota xingle bat dantzatzeko, eta hori nabari da, lan handia egin behar izaten da”.

Sanferminetarako prestakuntza ezpatadantzari taldearen osaketaren arabera izaten da. “Joan den urtetik, izatekotan, al-daketa bat edo bi izanen dugu aurretik, eta jende bera izanik, ez da hainbertze entsaiatu beharrik. Maiatz erdialdera edo bukaera aldera hasten gara entsaiatzen



eta berriren bat sartzen bada, dantzak erakutsi egiten dizkiogu. Batzuekin bertzeekin baino pazientzia gehixeago behar izaten da, baina denek nahiko abudo hartzen dute". 10-15 bat entsaio egitea gustatzen zaio Etxebesteri, "lehenbiziko astean pare bat eta gero, astean hiru entsaio...". Sanfermin egunean, kapitainak ardura berezia dauka 15 ezpatadantzarien artean: "Denak zuri egiten dizute kaso, pausua eraman behar duzu, arratsaldeko aurreksua ere zeronek dantzatu behar duzu eta lehenbiziko urtean urdurinintzen. Azkenean tonteria bat da, baina ardura berezia da, dudarik gabe. Milaka aurreksu dantzatu ditut, ezkontzatan-eta, baina Sanferminetakoa berezia da, aitzinetik pixko bat estiratu eta pentsatzen hasten zara 'hanka altxatzerakoan ez naiz gibelera eroriko, ez?', kezka gehiago izaten da". Ezpatadantzari entzako Sanfermin eguna hagitz polita eta berezia izaten da, baina aldi berean, gogorra eta luzea. "Azkenean luzea egiten da, bai" dio kapitainak, "prestakuntza pixko bat komeni da, kirola egiten baduzu hobe, lasterka edo futbolekin aritzen garenak errazago pasatzen dugu eguna. Desberdina da, ez zara lasterka ibili behar, oinez pausu luze batean baizik, baina azkenean nabari da. Ez gaude espartzinekin ibiltzera ohituak eta hanka zolean nabari da. Gero badira dantzak biziagoak direnak, 'Ziarkakoa' adibidez, esplosiboada". Horregatik, bezperan zaintzea komenigarria dela uste du Pello

Etxebestek, "nahiz eta batzuentzat hori betetzea zaila den, egun horrek merezi du. Ni ez naiz inoiz ateriatzineko egunean besta egitera, lasai ederrean egoten naiz etxean".

Hori bai, Incansables txarangan ere aritzen denez, noizbait goizaldera arte lanean aritzea suertatu zaio eta, "bizpahiru ordu lo egin eta gero, ezpatadantzari ateratzea, hori gogorra egin zitzaidan". Azken urteetan, Sanfermin egunaz aparte, Pello ez da herrian izaten bestetan, Iruñean aritzen baita txarangarekin. "Ez dut batere bizitzen, uztailearen 6a eta 7a bakarrik. Peñen egunean izatea ere gustatuko litzaidake, baina lanarengatik ez da posible".

Incansables txarangarekin harat-honatean ibiltzen da uda osoan, baina txarangarekin dantzan aritzeko gero eta ohitura guttiago dagoela onartu du Pellok. "Orain nonahi izaten da musika eta jendeak gero eta kasu guttiago egiten dizu. Halere, Hernaniko Sanjuanetan aunitz dantzatzen dute eta txarangarekin ibiltzen dira; Elizondoko koadrillen egunean ere... Lesakan ere peñen bajadan bakarrik egiten dute kaso, bertzela gutti". Azkenean, nahiz eta besta giroan bizitu uda osoan, Pellorentzat lana da. "Joaten zara herri bateko txupinazora eta herri horretakoak denak kontent daude, besta egiteko irrikitan, baina guretzat 'bertze bat' da, ohitzen zara eta zure lana da. Nik ez dut bestarekin disfrutatzen, musika jotzearekin baizik" aipatu digu lesakarrak.



FAGOAGA HARATEGIA

Aupa San Fermin !!

Abislu. 17 - ☎ 948 63 78 69 - LESAKA



BAR FRONTÓN

PLAZA BERRI Nº369487711779 LESAKA



GARBILEKU
Garbitegia Lesaka

Plaza Berria, 10 - LESAKA - T. 948 637 438



BEKO

Lore eta landareak

Ongi pasa Sanferminak

Frain auzoa - LESAKA - T. 948 637 826



TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA

IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
T 948 63 74 60
31770 Lesaka (Navarra)

Kalefakziorako Gasoila
etxez etxe banatzen da

Besta ederrak pasa !




Ibaiondo
janaridenda

Antoia karrika
948 637 949
LESAKA

ongi pasa san ferminak!!


INDARRI
Hotz komertziala eta industriala
Aire girotua
Tel: 948 630 898
Mug: 639 103 305 BERA
ONGI PASA BESTAKI

IRU BIDE Irteerria / Asatza

Biomasa, 3
LESAKA
Tel:
948 637 127

INAKI OLAIZOLA
elekttrizitatea

- Elekttrizitatea orokorrean
- Muntaiak elektrikoak
- Alarmak

Bittiria, 39 • LESAKA
948 637 405 - 670 417 499


intzuri
O P T I K A
Naiara Alberro Reteg
OPTIKO-OPTOMETRISTA


ALKEBA ZABALA
EGLIZKITAKO
BETALURREKOETAN

Bittiria 38
LESAKA
T: 948 627 550



uztailak 2 ORTZIRALA

22:20 **Musika bandaren** emanaldia Onin
errekaren gainean



uztailak 3 LARUNBATA

15:30 **Plater tiro lehiaketa**
Illasmendiko tiro-eremuan,
Pagolleta ehiza elkarteak antolatuta



uztailak 4 IGANDEA

Goizez **Ibilaldi neurtua** Bortzirietako
Gorriak antolatuta
Izen-ematea: 09:00ak arte.
Irteera 09:30ean Plaza zaharretik.

17:30 **Trikitixa txapelketa** Plaza Zaharrean

uztailak 6 ASTEARTEA

12:00 **Suziriak** beste hasiera emanen die



12:00 Txistulariak, soinulariak, Musikaña txarangak, trikitilariak eta haur ttikien danborradak herriko karrikak girotuko dituzte



17:30 Tantirumairu Euskal Folklore taldearen erakustaldia frontoian

20:00 Peña guztien ordezkariak altxaferoa bota ondotik, **danborrada nagusia** abiatuko da. Erraldoi, buruhaundi, danbor-jole, soinulari eta Lesakako bandaren laguntzarekin karrikaz karrika ibiliko dira

00:00 Dantzaldia **Triki ta ke** taldearekin **Txaranga** karriketan ibiliko da



IÑAKI Arretxea, 12
948 638 287
janaridenda

Pinpirin
PELOUJESAN - LA FARMACIA
Besta onak gure itxaropen!
Plaza Zaharra, 25 - Lesaka
T. 948 63 80 37

Barrio Otsango Pol. Adu 16 - LESAKA
Tel / Fax: 948.637.227 Mug: 609.468.871 / 606.938.271
 **MARITXALAR-ELGORRIAGA**
TRANSPORTES-GARRAIOAK
besta onak pasatu!!!

ongi pasa bestak!
 **IZARRA**
OKINDEGIA
PLAZA ZAHARRA 12-13
31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

ITURBENA
ONGI PASA BESTAK
kafetegia
Antoluj 25 - LESAKA



**BORTZIRI
UNIOI ANAIK**

Sukalderako alizariak

ONGI PASA BESTAK!

Berezu etxera • LESAKA

Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

LEGARRA

- EGUNKARIAK • FOTOKOPIAK
- ALDIZKARIAK • ENKUADERNAZIOAK
- LIBURUAK • PLASTIFIKAZIOAK
- OPARIAK • FAX PUBLIKOA
- TABAKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

San Ferminetan egunero irekia: 8:30-12:30

T/F: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

Semper Semper Semper

autoeskola

bestak internet
bitartez
egiteko
aizkara

Semper

**BESTA ON BATZUK
PASA ITZAZUE!**

BERA • T/F 948 630 298

**MARMOLES
ALKAIA, S.L.**

Gisa guzietako lanak: marmol eta granitoan

ONGI PASA BESTAK!

Alkaiaga ind. Ziobi, 11 (sarrera Beratik) • LESAKA
Tel: 948 631 215 Faxa: 948 631 063
Mug: 609 207 731
marmoles-alkaiaga@telefonica.net



uztailak 7 ASTEAZKENA

Sanfermin eguna

08:30 Ezpatadantzarien meza ixila

Joan-etorria Txistulari bandaren laguntzaz egingen da

10:30 Udalbatza bertze agintariekin, Ezpatadantzari eta Musika Bandarekin batera, abiatuko dira Herriko Etxetik elizara, **Meza Nagusira**. Han, Lesakako Abesbatzak abestuko du

Ondotik Fermin Zaindariaren irudiarekin prozesioa

Ondotik Onin errekaen bi aldeetan egiten den **Zubigainekoa** dantza



Ondotik Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean, ikurra Herriko Etxera igan aitzinean

18:00 Bezperak; Elizako joan-etorria Meza Nagusira bezala egingen da.

Ondotik Ezpatadantzari taldeak Mutil-dantza, Neska-dantza, Aurreku eta jotak dantzatuko ditu Plaza Zaharrean



19:30 Bertso jaialdia Plaza Zaharrean Arrano Elkartek antolatua. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Julio Soto eta Estitxu Arozena
Gai-jartzailea: Iban Garro

Gaezan Dantzaldia **Gaubela** taldearekin
Egun osoan Musikaña **Txaranga** karriketan

LESAKA

uztailaren 2tik 11ra

uztailak 8 OSTEGUNA Peñen eguna

- 09:00** Peñen gosaria
10:00 Peñen **danborrada**, Musikaña txarangarekin
12:00 **Betizuak**, Plaza Zaharrean Musikaña txarangarekin



- 17:00** Plaza zaharrean **Poxpolo ta konpainia** haur ikuskizuna
18:00 **Peñen kontzentrazioa** Musikaña txarangarekin, Peñen jautsiera egiteko

Arratsaldez

Gauetz Dantzaldia **Imanol** DJarekin



Patuqueria Ilanpaindegia
Maite Igarzabal
ongi pasa bestaki
Artioiu kalea, 23 behe - 31770 LESAKA - T. 948 63 75 50

KATTU
OSTATU-JATETXEA
MENUAK • PLATER KONBINATUAK
BOKATAK • HANBURGESAK
ONGI PASA SAN FERMINAKI
Arretxea, 22 • T. 948 627 573 • LESAKA

"TELLETXEA"
Lorazaintza
Paisajismoa • lorategiak diseinatzea eta sortzea
ureztatzeko sistema automatikoak • kimaketak • mantentze lanak
John Telletxea
Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
Otxango Ind. 18 • LESAKA • T. 619 418 683 F. 948 637 049
johntelletxea@hotmail.com

TRANSTXAKAIN
TRANSTXAKAIN LL
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY
MOTA GUZTETAKO IBILGAILUAK
EKOTXAKAIN S.L.
GAIKAKO HONDAKIN BILKETA
Gora San Fermin!
T. 669 640 198 / 948 638 052
Faxa: 948 627 578
Otxango Ind. 28 • LESAKA
transtxakain@yahoo.es

Mikel UBIRIA
eskabazioak
eskabazioak eta garraioak
Tel: 948 637 214
Mug: 619 716 322
608 779 641
Bimira piz, 8 • LESAKA

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE



**Jai alai eta
pozgarriak
izan itzazuen**

**Plaza Zaharra • 948 63 72 87
LESAKA**

Lesaka
AUTOESKOLA

- Baimen mota guztiak
- 5 eguneko teorikoa, intentsiboa
- Ordenagailu bidezko sistema berria

... eta hau guztia...

baita EUSKARAZ ere!

GORA SAN FERMIN!



**Albistur 39-H • LESAKA
T. 948 637 870 • 649 438 183**



Juan Fermin Mitxelena

Lesakako alkatea

“lazko aurrekontu
berarekin egun bat
gehiago izanen
dute Sanferminek
eta garbiketa lanak
hobe egingen dira”



Juan Fermin Mitxelena Lesakako alkatea aipatu digunez, iazko aurrekontu berbera izanen dute aurre Sanferminek: “63.000 euroko aurrekontua izanen dugu, iazko berbera, baina egun bat gehiago sartu dugu, larunbatean bukatu beharrean igandean bukatuko dira bestak. Diru berarekin luzatu egin dugu. Peñen egunean goiz eta arratsalde izaten ziren betizuak eta orain goizez bakarrik paratu dugu eta arratsaldekoa igande eguerdipasatu dugu”. Garbiketari dagokionez, joan den urtean arazoak izan ziren eta horri garrantzia eman diote Herriko Etxean. Alkatea aipatu digunez, “garbiketa berriz ere kanpoko enpresa baten esku utziko dugu, joan den urtean hutsegite handia izan zelako, bestak akautu eta ondotikan egunak eta egunak jendea kexaka. Larunbat eta igandean, egunik fuertenetan garbiketa sakonak egingen dira eta astelehenean garbiketa orokorra egingen da, karrika guzietan sartuta, orain dela bi urte arte etortzen zen enpresarekin. Musika taldeei fuertea estutu diegu aurrekontuetan horretarako”.

Gainerakoan aldaketa handirik ez da programan. Txupinazoa baino lehen badira taldeak zerbait antolatu nahi izaten dutenak, plater tiroketa dela, musika bandak erreka gainean eskainiko duen kontzertua, trikixka lehiaketa,

Bortzirietako Gorriak taldeak antolatutako ibilaldi neurtua... Txupinazotik aitzinera berdintsu joanen dira bestak, iaz bezala gerrikoa estututa, baina besta giroak horretarako bideratzen den diruarekin zerikusirik ez duela uste du alkatea. “Hondarrean besta giroa besta egiten duenak antolatzen du, plazan izaten diren taldeei dagokionez, batzuei bat gustatuko zaie, bertzei bertzea, baina saiatu gara ahalik eta eskaintzarik zabalena ekartzen. Peñen egunera, gazteen gustakoa den DJa ekarri dugu, baina joan den urtean baino %40 guttiago kobratuko du. Baina leku guzietan hori gertatzen ari zaiola onartu digu, egoera horrela dago eta hala onartu beharra dago”. Bazkari eta otordu ofizialetan ere, prezio jakin bat paratu eta horri utsiko diote. “Ez da bertze urteetan hainako bazkaririk izanen, baina bazkaria bai izanen da. Gainerakoan ez dugu elkarrekin egoteko modurik eta hori mantenduko dugu. Kultur taldeek izaten dituzten luntxak ere berdin egingen dira, baina pixko bat gastua neurtuta” adierazi digu alkatea.

Etorkizunera begira, murrizketa egoera hau mantendu beharko dela uste du Mitxelenak, baina pixkanaka buelta emanen zaiola ere uste du. “Urrian berriz ere alkatetza hartu nuenean, erran nuen herrikoia ez diren neurri-

ak hartu beharko zirela. Diru sarrerak handitzen saiatzen gara, orain bertan Irain gain horretan babes ofizialeko 54 etxebizitza egiteko promozioa bada, hori martxan paratzean lizentziarekin eta udalari ordaindu behar zaion %10 horrekin, izanen dira sarrerak. Horrekin diru mordoxka sartuko da, ez lehen izaten ziren kopuruak, denak babes ofizialekoak direlako. Pixkanaka-pixkanaka gastuari eskapatu gabe kontuz eta sarrerak ahal den neurrian handituz ateratzen joanen gara, baina hurrengo bizpahiru urtetan ez zaio aisa buelta emanen. Toki guzietako egoera da hori, ez da gure kasua bakarrik. Ez dago konfindatzarik eta kosta eginen da "dio alkateak. Juan Fermin Mitxelenari San Fermin eguna da gehien gustatzen zaiona, "egun guziko ekitaldiekin boro-biltzen baita egun handia, egun konpletuena da. Peñen eguna ere hagitx polita da gazteentzat; 9an haurrentzako egun polita izaten da eta instituzionalki inguruko

udaleko ordezkariekin biltzen gara, aperitiboa hartu, arazorik gabe solas egiteko giro polita izaten da, batzuk pilota partidara joaten dira bazkalondoan..." Azken hiru urtetako bestetan oposizioan izan ondotik, aurtan berriz ere alkatearen aginte-makilarekin izanen da Mitxelenak, eta ardurak ez direla berdinak onartu du: "Gauaz berdin berdin ibili naiz bestetan alkate izan edo ez izan, baina erresponsabilitatea ez da berdina. Alkate zarenean, badira egunean zehar momentu batzuk behar den bezala eta behar den tokian egon behar duzuna". Kezkarik handiena ortziral eta larunbatarratseko jendetzarekin izaten du Mitxelenak. "Beti pentsatzen duzu, 'hemen zerbaite gertatuko balitz, zer?' Beti izan dugu protokolo bat, fabrikarekin kontatuz, hortik atera ahal izateko, baina gertatzen ahal da fabrika eta Tomasenekoborda artean norbaitek kotxea traban utzi izana... Kezka horiek handiagoak dira alkate zarenean".



garbiketako - limpiaketa

usi

ongi pasa bestak

MOTA GUZTIETAKO GARBIKETAK

- Bulegoak, portalak, etxeak, kristalak, garbiketa orokorra eta eraikuntza lanetakoak
- Industria-makinekin lan egiten dugu
- "Fregado en plano" delakoa
- Produktu profesionalak (pastetxoen zurkakoak, alaitxoak...)

T. 689 305 221 (Oihane) LESAKA

Gora San Fermin !!

Juan Luis

OTXOTEKO

Pintorea

Eskatu aurrekontua konpromisonik gabe

Bitirria, 26 3.B - LESAKA - Nafarroa

T. 948 637 902 M. 678 993 818

otxotekopinturak@yahoo.es

DIETA

PERTSONALIZATUAK

SANDRA LEGASA ROSA

DIETISTA-NUTRIZIONISTA

HOMEOPATIA

KONTSULTA

ZURIA DORRONSORO

MEDIKU HOMEOPATA

*san fermin
hauetan
mantendu orekal

arrebexa 7, LESAKA

t. 948 63 73 73

oreka

nutrizioa eta dietetika
belardenda

TAILERRAK
ALMANDOZ

ONGI PASA BESTAK

- Mekanika
- Elektrizitatea
- Karrozeria
- Kamioiak
- Ibilgailuak
- Furgoneta - 4x4

Faxa: 948 625 171 • Mug.: 679 892 032
Banarta, 18 • Alkalaga Ind. • LESAKA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilatze espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

LESAKA: Bittiria, 71-behea
Tel: 948 637 050 • Faxa: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4
Tel: 948 133 328 • Faxa: 948 133 713
artekari@artekari.com

ainhoa
estilista



ONGI PASA BESTAK
Bittiria 59 • LESAKA • 948 637 436



uztailak 9 OSTIRALA

Haurren eguna

10:30 Haur eta gurasoen danborrada
Musikaña txarangak lagunduta



11:00 Haur animazioa, "Gorriti", Eltzeta plazan

12:00 Betizuak, Plaza Zaharrean Musikaña txarangarekin

Arratsaldez Plazan haurrentzako tailerrak, puzgarriak, ludoteka...

18:00 Frontoian, esku pilota partidak profesionalen artekoak

Arratsaldez
Gauetz Dantzaldia Egan taldearekin
Musikaña Txaranga karriketan



LESAKA

uztailaren 2tik 11ra

uztailak 10 LARUNBATA Bikoteen eguna

- 11:30** Andra Mari Zahar Etxeko lorategian, Nafarroako Jotak, Voces del Ebro taldearekin. San Fermin Jubilatu eta Pentsionisten Elkarteak antolatua
- 12:00** **Betizuak**, Plaza Zaharrean Musikaña txarangarekin
- 16:30** Frontoian, Arkupe Elkarteak antolatua, **haurren pilota** erakustaldia
- 18:00** Nafarroako Jotak Voces del Ebro taldearekin Plaza Zaharrean
- 18:00** Eskolttikitik Txakainera kalejira, Musika Bandarekin



- 20:00** Txakaindikjautsiera, zortziko doinuarekin
- Arratsaldez** **Gauetz** Dantzaldia **Gabezin** taldearekin
- Ondoren** Musikaña **Txaranga** karriketan
- 03:30** **Jai-hilak** Musikaña txarangarekin

uztailak 11 IGANDEA

- 12:00** **Betizuak**, Plaza Zaharrean Musikaña txarangarekin
- Arratsaldez** Dantzaldia **Gaubela** taldearekin

Rikuszpegi Auzoa, 6 Dendakineko Etxea 31770 Lesaka-Navarra
Tel: 948 627 554 • 656 763 186

►Txus Ubiria Andueza
margoketa lanak • pintor

Urdi Lesaka
BARRIO DE DESPORTES Y BARRIO DE LOS SEÑORES

Gora san fermin eta ongi pasa bestak!!

Lesakako urdi kimikologia • 948 617 400 • lesaka@urdi.es.com

Gora San Fermin!

udana
salazones

*Importazioko
bakailu gazitua,
geztatua
eta kongelatua*

Alkaiaga Ind. • Lesaka
Tel.: 948 631 536 • Fax: 948 631 550

bixkiak
arropa denda
KIROL ETA MODAKO ARROPA DENDA

Onai pasa bestak!!

Arretxea, 7 B2 • LESAKA • 948 638 110

ETXEPARE anaiak
igeltseritza orokorrean
ongi pasa san ferminak
Bittiria, 22 • LESAKA
948 637 431 • 608 576 504



BURBULLA
Bittiria, 36 • LESAKA • 948 638 004



ONGI PASA BESTAK!
D
««««H I R U K I D E»»»»
Eguzki panelak «» Iturgintza
Industria mantenimendua «
Aire egokitua «
T. 948 625 395 • F. 948 625 392
Alkaiaga ind. • Alasta, 4-6 Behea • 31770 LESAKA

Beheko plaza 10 • 31770 Lesaka
T. 948 627 514

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzeria
- Jantzi tipikoak
(konpromisurik gabeko
aurrekontuak dantza taldeentzako)
- Peñen blusak

...
sanfermin
onak pasatu!
kattagorria
lentzeria mertzeria




Iraia Etxabide

Kartelaren eta programaren
azalaren egilea



“Ezpatadantzariaren irudirik gabe zaila da Sanferminetako kartela osatzea, alde horretatik segurura jo dut”

Lesakako Sanferminetako kartelaren eta bestetako programaren azalaren egilea da Iraia Etxabide Etxeberria, 22 urteko gazte lesakarra. Arrasateko Mondragon Unibertsitatean egin duen Ingenieritza teknikoa, industrial eta diseinu karrera bukaerako proiektua egiten ari da, Donostiako estudio batean. “Hiru urteko karre-
ra da eta laugarrena proiektua egiteko”, dio. Kartel lehiaketara lehen aldiz aurkeztu du lana, baina portada lehiaketara jazbertze lan bat aurkeztu zuen, “ez nuen inoiz egina eta animatu nintzen, baina azterketetan nintzen eta ez nuen denbora sobera hartu. Aurten lasaiago nintzen, proiektuarekin, bertze martxa batean, azterke-

tarik gabe, biek egitera saiatu naiz eta ongi, hagitz ongi”. Izugarrizko sorpresa izan da bereztat bi sariak eskuratzea. “Deitu nindutenean erran nuen, ‘ez da posible biak irabaztea!’”. Lehenengo aldia da aurkeztu nuena eta Lesakakora bakarrik aurkeztu dut. Orain bai, mundu guztiak erraten dit, ‘badaukazu ez dakit non halako lehiaketara bat’, baina ez dut inon aurkeztu” erran digu Iraiak. Bere ustez, ikasketak lagun izan ditu sariak irabazi ahal izateko, “oinarri tekniko batzuk ematen dizkidelako, diseinuko asgnaturak baditu, diseinu grafikoa gustatzen zait eta azkenean saltseatzea da. Nik argazki bat hartu dut oinarri eta argazki ona

baldin baduzu, argazkiak berak aunitz erraten du, errazagoa da. Photoshop programarekin tratatzen dut argazkia eta zerbait idazteko edo gauza gehiago sartzeko marrazketa bektorialeko programak erabiltzen ditut, Free-Hand edo Illustrator, bien arteko konbinazioa ongi gelditzen da". Ezpatadantzariak ageri dira bere lanean eta, orokorrean, horixe izaten da lehiaketara aurkeztu diren lan gehienen gaia. "Pentsatzen dut erabat aldatuko bagenu gaia ez lukeela inork kontuan hartuko, horregatik kartelean ezpatadantzariak sartu ditut, beti bezala, baina portadan neska dantzariak ere sartu nahi nituen. Nere aldetik 'seguroa' xamar jotatzea izan daiteke, baina alde horretatik Lesakan nahiko tradizionalak garena iruditzen zait. Portadan gauza ezberdinak egiteko aukera gehiago dago".

Diseinuarekin ez ezik, musika-ekin eta dantzarekin ere harreman handia du Iraiak. Zeharkako txirula jotzen du musika bandan eta aunitz gustatzen zaio San Fermin egunean jotzea. Dantzari dagokionez, Tantirumairu euskal folklore taldeko kidea da 5 urte zituenetik eta bezperako jaialdian dantzatu du orain arte. Aurten, Sanfermin arratsaldean dantzatzeko deia jaso du lehen aldiz, "eta baiezkoa eman dut, probatzea-gatik eta egun hori bertze modu batean bizitzeagatik, baina gustatuko litzaidake goizean bandarekin ere ateratzea. Gehienez lau urtez egiten ahal dute neskek dantza San Fermin egunean eta adina ailegatzen denean Herriko Etxetik deitzen dute". Iraiari ku-

riosoa iruditzen zaio dantzarekin gertatzen dena Lesakan. "Mutilek adin batetik goiti uzten joaten dira Tantirumairu dantza taldea, baina gero denak sartu nahi izaten dute ezpatadantzari taldean. Tantirumairun 20 bat neska izan-en gara eta hiru mutil, nahiz eta orain bi mutil sartu diren. Guk dagoeneko ez dugu mutildantza edo neskadantzarik egiten, denok denetik egiten dugu. Orain Aritz Salamancarekin ikasten dugu, bi astetik ortziraletan biltzen gara eta gero asteazkenetan ere aritzen gara". Sanferminetako egun guziek zerbait berezia daukate Iraiarentzat, "bezperan kriston gogoekin hasten zara, txupinazoa, dantza saioa, tanborrada, afari on bat dantza taldekoekin eta gero besta... biharamonean etxera joan, txirula hartu eta bandarekin jotzera, egun polita da eta peñen eguna izugarria izaten da, aunitz gustatzen zait. Azkeneko eguna lasaia goak dira, baina ongi daude".

Bestetako programan sartzeko ez zaio deus berezirik gogoratzen, "programa hor dago, baina gero norberak egiten du bere plana bere neurrira. Betizuak ez zaizkit sobera gustatzen, baina ikusten dut zenbat jende izaten den eta pentsatzen dut jendeari gustatzen zaizkiola".

Mila euroko saria ere ongi etorriko zaio Sanferminetan gozatzeko: "Sari polita da, mila euro bada zerbait, baina lagun guziak ari zaizkit trago batera gonbidatzeko erraten. Sanfermin on batzuk botatzeko ongi etorriko dira eta gero oporralditxo baterako ailegatzen bada...".





Gora San Fermin!

LESAKAKO ZERBITZUEN ELKARTEA

- Txinelka zapatadenda
- Esther ateak
- Iñaki portu janaridenda
- Ibaiondo janaridenda
- Bixkiak kirolidenda
- Goizalde janaridenda
- Legarra liburudenda
- Gemma Igarzabal ileapaindegia
- Maite Igarzabal ileapaindegia
- Oronoz argazkidenda
- Lesaka autoeskola
- Olga Alzate botika
- Osina arropadenda
- Deñe lentzeria
- Juan Luis Otxoteko margoak
- Ortzadar opari denda
- Comercial Maria Jesus
- Ordoki altzariak
- Telletxea argazki eta liburudenda
- Antxordoki ahizpak
- Haizea kafetegia
- Atxaspi hotela
- Kattu ostatu jatetxea
- Intzuri optika
- Barcelo bidaiak
- Kaxerna elektrogailuak
- Oreka nutrizioa eta dietetika
- Oninart
- Felipe Mindegia Marichalar
- Pampina haurren arropa-denda

ZOAN.S.A.



TXAPA • PINTURA • MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA

ongi pasa bestak



Banarta, 2 • Alkaiaga ind. 31789 LESAKA (sarrera Beratik)

Tel.: 948 625 555 • Faxe: 948 625 505

loar Tainta

Lesakako bertsolaria

“Kristona izanen
litzateke noizbait
San Fermin
egunean kioskotik
bertsotan aritu
ahal izatea”



Sanferminzale porrokatua da loar Tainta, berriki 14 eta 18 urte arteko Nafarroako Eskolarteko bertsolari txapelketan txapeldun suertatu den lesakarra. “Edozein gaztek bezala bizitzen ditut, nere herriko bestak sakratuak dira eta ahalik eta hobekien pasatzen saiatzen naiz”, dio. Taintarentzat egunik politena Peñen Eguna da. Azken urteetan, gazteek peña berriak sortu badituzte ere, bera Kilkerrak talde historikokoa da, gurasoak bezala. “Gure koadrila nahiko berezia da, bakoitza peña batekoa baita, baina denak elkartzen garenean denen peña osatzen dugu, polita da”.

Bertsolaria eta bertsozalea izaki, peñen egunaz gain ez du inoiz huts segiten San Fermin eguneko bertso saiora. Oraindik gaztea bada ere, noizbait gustura igoko litzateke oholtzara egun horretan ere: “Niri bertsotan aritzea pila bat gustatzen zait, igual-igual zait Sanferminak izatea edo bertze edozein egun, kristona izanen litzateke egun horretan kioskotik kantatzea” erran digu loarrek. Aurten, Eskolarteko bertsolari txapelketan Nafarroako txapeldun suertatu da 14 eta 18 urte artekoan, Beran jokaturako finalean eta 2006an, ttikien kate gorian ere txapeldun izan zen. “Bietan azkeneko urtean atera naiz txapeldun –dio–, ez dakit zergatik den, dena eman beharra edo”.

Aurten, Nafarroako txapelketa nagusian ere aritu da, baina “hagitz urduri” aritu zela onartu du. “Estitxu eta hauen ondoan oholtza gainean izatea hagitz handia izan da. Lehenbiziko aldiaren nobatada ordaindu dut eta hemendik aitzinera beldurrik gabe aterako naiz” adierazi digu gogotsu loarrek. Asteburu honetan, Euskal Herriko Eskolarteko txapelketaren finalean aritzekoa zen Agurainen. “Ez dut deus espero, ongi pasatu nahi dut, batez ere lasai kantatu eta ahalik eta hobekien egin. Neretzat Nafarroan txapeldun izatea ezustekoa izan zen eta sari bat da” erran digu. Oholtza gaineke urduritasunik gabe, lasai ederrean Sanferminei buruzko pare bat bertso eskatu dizkiogu. Horratx gaiari emandako erantzuna:

Sanferminekin amesten gaude
denak denbora guzian
San Fermin sena azaltzen zaigu
nahiko modu biluzian
Bertso saioa, musika, dantza
gure aste nagusian
Hainbeste gauza bizi behar dira
hainen denbora gutxian.

Egun hauetan kanpora gure
herri pozak, herri minak
Txuri eta gorritz gorde behar dira
Festetako imajinak
Txupinazora azaldu eta
hasierako ahaleginak:
“Gora Lesaka ta lesakarrak
eta gora San ferminak!!!”.

MATIAS MITXELENA
eraikuntzak

Etxeak •
Zaharberlitzak •
Telatutak •

T. 948 63 71 82 • 608 77 79 08 **LESAKA**

Orduak: 09:00-17:00
Orduak: 09:00-13:00, 16:00-19:30
Orduak: 10:00-18:00
Orduak: 08:30-13:30

DUUE

estetika zentrua [948630309] leopindegia [948631483]
email:duue3@hotmail.com

antxordaki
LEZARROKOR eta ESTETIKA

Txapeldunak txapeldunak diren zatiak:
- Zehaztasun - Eredutza
- Tonifikazio - Sabelondak
Txapeldunak txapeldunak diren zatiak:
- Celulite - Reducto
- Tonifikazio - Post-urea

Aurpegiako txapeldunak
Txapeldunak txapeldunak:
- Solarium
- Lazer

aparatu berria!
Ezagutu gure
deskontuak
txapeldunak txapeldunak
bakoitza txapeldunak

Albistur 39 LESAKA
tel. 948 637 703

TXIRULA

CLIMALIT kristal bikoitza
ISPILUAK edozein lodiera eta
kolorekoak, alakadunak, kanteatuak...

BEIRA-PLAKA LANDUAK
BEIRA BLINDATUAK

Antoiu, 34 C • LESAKA • T/F. 948 928 976

BERA

LANA → ERREGULAZIO ESPEDIENTEA AURKEZTU DU ZUZENDARITZAK

Kaleratzeen kontra mugagabeko greba hasi dute Saveran

137 langileetatik 56 kaleratu nahi ditu enpresak

TTIPI-TTAPA

Savera lantegiko 137 langileetatik 56 kalera-tzeko espedientea aurkeztu du zuzendaritzak Nafarroako Gobernuan eta horren kontra, mugagabeko greba egiten ari dira langileak ekainaren 16az geroztik. Horixe zen Langileen Batzordearen (ELA) proposamena eta hala onartu zen. 137 langileetatik 117 izan ziren batzarrean eta 108k alde bozkatu zuten, 7k kontra eta bi botu txuri izan ziren. Zuzendaritzaren arabera, berriz, «produkzioa urteko 25.000 tona ingurura jausti delako» aurkeztu du EREa.

Langileen Batzordeak idatzi bidez jakinarazi duenez, greba honekin «Saveran egin nahi den deslokalizazioari baime-nik ez ematea eskatu nahi diogu Lan Departamentuari, 56 langile lanik gabe utzi dezakeen erabakia. ERE honek, berez, Beran produzitzen den kalitate handiko produktua alde batera utzi eta Txinatik inportatutako kalitate txarragoko bat ekartzeko deslokalizazioa dakar». Enpresak, aldiz, «produktu hau Beran egin ez bada, bertze inon

ez dela eginen» erran du.

LABek, bertalde, ERE hau Bortzirietako indus-triarentzat «izugarritzko kolpea» dela adierazi du. Eta Aralarrek babes osoa agertu die mugagabeko greba hasi dutenei.

Goiko Madrilen

Martin Goikoetxea argazkilaria Madrilen

izan zen ekainaren 17-an, Gran Viaren mendurrenako ospakizunen barne, argazki erreportaje bat egiteko. Lehiaketa bat antolatu zuen Madrilgo Udalak, eta parte hartu nahi zuten 250 bat argazkilaritik 31 aukeratu zituen, tartean *Goiko*. Madrilgo kale famatuko eraikinik al-

tuenetatik argazkiak ateratzekoa zen.

Bake epailea

Bake Epaile Titularra eta Ordezkoaren karguak beteko dituztenak aukeratu ditu Udalak: Ignacio Quiroga Tapia izan da titularra, eta Francisco Javier Fagoaga Telletxea ordezkoa.



Pertsonaia
Ane BERGARA

Espanyol taldearekin Espainiako Kopa irabazi du

Zazpi urte daramatza Ane Bergara futbolaria Bartzelonan bizi, eta borts denboraldi Espanyol taldean. Tikitatik erakutsi izan du futbolarako duen abilezia, eta aurtengo denboraldia ere bikain osatu du. Abendu aldera belauranean min hartu eta bi hilabetez jokatu ezinik egon bazen ere, erreuperatu eta ederki bukatu du denboraldia. Ligan, denboraldi osoan lehen postuan joan ondotik, ez zuen irabazterik izan Espanyolek, azken momentuan Rayo Vallecanok kendu ziolako garaipena, lehenbiziko partidari galdu eta itzulerako partidari berdinketa egin ondotik. Baina Espainiako Kopa bertzelakoa gertatu zen. Kopako finalean ere Rayo Vallecano izan zuten Bergarak eta bere taldekideek aurkari, baina garaipena Katalunia aldeira joan zen. 3-1eko markagailuarekin irabazi baitzuen Espanyolek. Gainera, herriarrarena izan zen markagailua ireki zuten gola. Lerro hauen bidez, zorionak eta bejondaizula Ane!



ARGAZKIA: MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolaren jaialdi berezia arrakastatsua izan da

Isidoro Fagoaga Musika Eskolaren 30. urteurrenaren harira, Musika Eskolak eta Kultur Batzordeak antolatutako jaialdi berezia ederki joan zen. Arratsaldean 300 bat lagunek kalejira egin zuten, Musika Eskolako zapi gorriak jantzita, eta ilunabarrean, Altzateko Plazan bildu ziren ekitaldi nagusiari egiteko.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Juana Ospitalek 100 urte bete ditu

1910eko apirilaren 14an jaio zen Juana Ospital Mirande Baxenafarroako Ortzaizen. Mende bat beranduago 100. urteurrena ospatu du berriki San Jose Zahar Etxean, borts alabekin. Seme bat ere izan zuen, baina hiru hilabete zituela hil zen. 13 biloba eta 11 birbiloba ditu Juanak Sunbillan, Iruñean, Hueskan, Madrilen eta Marsellan. Eta oraindik osasuntsu bizi da, nahiz eta ikusmena galduta duen eta eroriko baten ondorioz, aulki gurgildunean mugitu behar duen.



AISIALDIA → IGERILEKUAK ZABALIK

Lorea Arangoa eta Andres Dangas izanen dira igerilekuetako arduradunak

Bertze lau langile ere kontratatuko ditu Udalak

Irune eta Itsaso

Sei langile hartuko ditu Udalak herriko lanetan aritzeko. Hala erabaki zuen, ekainaren 11n egin zuen batzarrean. Hauetatik bi, Lorea Arangoa eta Andres Dangas, igerilekuaz arduratuko dira abuztuaren 31ra arte. Herriko bertze lanetan ariko direnak Iñigo Senper, Juan Ramon Iturbide, Jose Luis Irisarri eta Rosi Arrola izanen dira; bakoitza hiru hilabete eta erdiz.

Gasna Feria Eguna

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jende aunitz hurbildu zen Gasna Feria Egunean. Gasna lehiaketan 15 parte-hartzaile izan ziren eta epaimahaia-

ren ustez, 12 izan ziren «onak». Irabazle suertatu zena, berriz, aspaldiko urte hauetako onena: Intzeko Bordako Josetxo Ariztegirena. Bigarren saria Baztangoa markako Joxe Mari Iriarteren gaztak lortu zuen eta hirugarrena Arantzako Margari Madariagak. Herrikoei dagokienez, Ariztegi eraman zuen lehen saria ere eta bigarrena Bekozubiko Juana Mari Arburuak.

Bazkarian ehun lagun baino gehiago bildu ziren eta Altxatako juntako Axun Maiak erran duenez, artisauek ere kontent gelditu ziren. Bertalde, *Etxalarko xoko eta jendeak erretratuetan* liburu eta DVDaren salmentak ere arrakasta izan zuen. Edurne Elizagoien egileetako batek adierazi duenez, 200 ale baino gehiago saldu ziren. Hemen-dik aitzinera herriko dendetan salgai egonen da.



ARGAZKIA: ITSASO ELIZAGOIEN

Ikasturtea bukatzeko Haurraren Eguna

Ikasturte akabera dela eta, urtero bezala, Haurraren Eguna egin zuten ekainaren 13an. Landagain eskolak eta Guraso Elkartek Altxata eta Udalaren laguntzarekin antolatu zuten eguna. Goizean eskolako haurren eskulan eta ipuinak paratu zituzten ikusgai frontoian. Meza ondotik, ipuin batzuk irakurri zituzten eta liburu bana oparitu zieten irakasleek. Eguerdian bazkaria izan zuten frontoian. Aurtengoan bigarren aldiz, joan den urteko arrakasta ikusirik, gurasoek ere izan zuten bertan bazkaltzeko aukera; 66 haur eta 42 guraso inguru bildu ziren.



ARGAZKIA: AXUN MAIA

Arkupeak Elkartearen omenaldia

Aurtengoan borts heritar izan dira omenduak: Juan Maia eta Juanita Ariztegi Diamantezko Ezteiak ospatzeagatik, Gaston Lestuzzi eta Kontxita Sarobe Urrezko Ezteiegatik, eta Eugenio Santesteban 85 urte bete dituelako. Aipatzekoa Aldalurko Bordako senar-emazteen Diamantezko Ezteien ospakizuna, zonaldeko bakarra izan baita. Gorraizko elizan meza entzun ondotik, bazkari ederra egin zuten.

San Juan sua

Asteazken honetan, ekainak 23, San Juan sua

eginen da plazan Altxata Kultur Taldearen eskutik. Udala eta Kultur Etxea-

ren laguntzarekin antolatu du eta 20:00etan egin dute hitzordua.



ARGAZKIAK: IRUNE ELIZAGOIEN

Ezkerrean, Gasna Lehiaketako saridun batzuk, eta eskuinean, Maite Irisarri eta Edurne Elizagoien, *Etxalarko xoko eta jendeak erretratuetan* liburu eta DVDaren egileak.



LESAKA

MERKATARITZA → ZOZKETA

Erosketa bonoak eta afaria zozketatuko ditu Zerbitzuen Elkarteak

Bezeroek zortzi denden zigiluekin bete beharko dute txartela eta uztailaren 2an egingen da zozketa

Aitor AROTZENA

Zerbitzuen Elkarteak bere bezeroen artean erosketa bonoen eta afari baten zozketa egingen ditu uztailaren 2an, 20:00etan plazan. Zozketan parte hartzeko, bezeroek komertzioetan emanen zaien txartela osatu beharko dute, zortzi laukitxoetan zortzi denda ezberdinetan erosketak egin ondotik emanen zaien zigiluarekin. Lau sari izanen dira: 300, 200 eta 100 euroko erosketa bonoak, elkarteak dendetan erabiltzeko eta Kattutxatxan lau lagunentzako afaria.

Udal Musika Eskola

Udal Musika Eskolak jakinarazi duenez,

2010-2011 ikasturterako matrikulatzeko epea ekainaren 28tik uztailaren 9ra irekita egonen da. Matrikulazioak 012ren bidez egin behar dira, astelehenetik ortziralerara 08:00etatik 19:00etara eta larunbatetan 09:30etik 13:30era. Argibide gehiago nahi duenak, eskolako telefonora dei dezake (618264659) 11:00etatik 13:30etara. Matrikulatzeko bigarren epea ere izanen da irailaren 1etik 10era.

Bazkideen Eguna kiroldegian

Ekainaren 26an ospatuko da hirugarren urtez udal kiroldegiko Bazkidearen Eguna. 10:30ean hasita haurendako jokuak izanen dira eta gero, helduentzako taldekako triatloia presatu da (250 metro igeri, 8 km. bizikletan eta 2 km. lasterka, dena kiroldegi barnean). Bazkariaren ondotik, *spinning* klasea emanen da eta haurendako filma izanen da ikusgai.



ARGAZKIA: J.J. GUERRERO

'Ezagutu Dezagun Lesaka' lehiaketako sariak banatu ziren

Beti Gaztek antolatzen duen *Ezagutu dezagun Lesaka* lehiaketako sari banaketa egin zen ekainaren 4an. LHko 1. eta 2. mailan, lehenbiziko saria Izaskun Galardirentzat izan zen, bigarrena Olaia lantzirentzat eta hirugarrena Ane Telletxea Oiartzabalentzat. LHko 3., 4. eta 5. mailan, lehen saria Kattalin Odriozolak eskuratu zuen, bigarrena Beñat lantzik, hirugarrena Paulo Ramosek eta laugarrena Ainara Otxotekok eta Aitziber Irazokik. LHko 6. mailan eta DBHko 1. eta 2. mailan lehen saria Maite Odriozolak jaso zuen, bigarrena Ane Gurrutxagak, hirugarrena Urki Txoperenak, laugarrena Ibon Txoperenak eta bosgarrena Leire Parrak. Herriari buruzko 30 galdera erantzun behar izan zituzten.



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

Maddalen Lopez Tapia, Nafarroako txapeldun bertsotan

Ikasturteari bukaera emateko Nafarroako haur eta gaztetxoek Nafarroako Bertso Eskolen Eguna ospatu zuten Larraintzarren ekainaren 4an. 80 bat ikasle, irakasle eta bertsolarik hartu zuten parte. Ohikoa denez, goizean 14 urte bitarteko Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala egin zen. Hogei parte-hartzaile izan ziren eta azkenean Maddalen Lopez Tapia lesakarrak jantzi zuen txapela. Bigarren postua Barañango Mikel Lasarterentzat izan zen. Bi bertsolari hauek Nafarroa ordezkatzekoa zuten ekainaren 19an Agurainen jokatzekoa zen Euskal Herriko finalean. Julio Soto Nafarroako txapeldunak jantzi zion txapela Maddalen Lopezi, baita parte-hartzaile guztiei oroigarria eman ere.

J. RAMOS
zolak akutxilatzen eta
barnizatzen ditudat
Sakelekoak: 637 836 073 - LESAKA

F. LANCHAS
Akutxatzailea eta berriztatzailea
Parket eta parket flotatzatzailea
Jantzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 736 M: 607 406 781

XATURETXEA
JATETXEA
T: 948 637 260 - LESAKA

ADINEKOAK → URTEROKO HITZORDUA

Baratzondon elkartuko dira jubilatuak San Juan Egunean

Sanjuan Xarreko
mezaren
ondotik bazkaria
eginen dute

TTIPI-TTAPA

San Juan Eguneko tradizioari eutsiko diote aurten ere jubilatuek eta ohi bezala, Baratzondo elkartean bilduko dira ortzegun honetan, San Juan Egunean. 12:00etan Sanjuan Xarren eginen den urteroko mezaren ondotik, bazkaria eginen dute elkartean, La Villan prestatutako jatekoarekin.

Aipatu, bertzalde, mezaren ondotik herriko dantzariak euren

saioa eskainiko dutela eta eguna oinak busti edo hiru iturrietatik ura edateko aprobetxatuko duenik ere izanen dela.

Aitzineko alean aipatu bezala, uztailako igande guztietan izanen da Sanjuan Xarren meza, 12:00etan.

Igerileku denboraldia abian

Ekainaren 12an zabaldu zituen igerilekuak ateak eta irailera bitarte irekia egonen da. laz bezala, Sonia eta Leire Taberna ahizpak dira ardura hartu dutenak. Bonoen prezioak ere joan den urteko berak dira. Ondoko taulan ageri dira zein diren.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENAK UTZITAKOA

Herritarrek Quebrantahuesos bizikleta lasterketan


Ukaezina da herrian dagoen bizikletarako afizioa haundia dela, eta urteko hitzordu nagusietako bat Sabiñanigon (Huesca, Espainia) egiten den Quebrantahuesos lasterketa bihurtu da. Aurtengoa ekainaren 19an egitekoa zen, joan den larunbatean, eta urtero bezala, herritar batzuk harat joatekoak ziren. Argazkia ez da aurtengoa; 2008an Quebrantahuesos-eko ibilbidea egitera joan ziren egunekoa da. Herritar sailak parte hartu zuen orduan.

2010EKO DENBORALDIKO PREZIOAK UDAL IGERILEKUAN

HERRITARRAK	EGUNEKOAK	HILABETEKOA	UDAKOA
0-4 urte	Doan	Doan	Doan
4-10 urte	2,5 euro	11 euro	17 euro
11-18 urte	3,5 euro	17 euro	25 euro
18 urtetik goitikoak	5 euro	21 euro	37 euro

KANPOTARRAK	EGUNEKOAK	HILABETEKOA	UDAKOA
0-4 urte	Doan	Doan	Doan
4-10 urte	2,5 euro	19 euro	28 euro
11-18 urte	3,5 euro	28 euro	42 euro
18 urtetik goitikoak	5 euro	35 euro	63 euro







**AROZTEGIA
MAKINA ERREMINTA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK**

Barandak, balkoiak, ateak,
hesiak, forja artistikoa, ...

**T./F. 948 638 150
M. 646 774 117**

Otsango Ind. • 31770 LESAKA
talleresjoisa@hotmail.com





ARANTZA

UDALA → ZERBITZU ANITZETAKO LANGILEA

Urte akaberarako langile finkoa izatea aurreikusi du Udalak

Eskaerak egiteko epea bukatuta, frogak laster hasiko dira

Nerea ALTZURI

Bertze hilabete batez, udal informazioa irakurtzeko aukera izan dugu. Eta bertan ageri diren zenbait punturen artean, zerbitzu anitzetako lanpostuaren inguruan xehetasunak ematen dira. Aste honetan, asteartean zehazki, eskaerak aurkezteko azken eguna izan zen. Hori horrela, aukeraketa prozesuko lehenengo pausua euskara frogatzen da. Horren ondotik, azterketa teorikoa eta praktikoa etorriko dira. Hori bai, urte bukaerarako herriko langile finkoa izatea aurreikusi du Udalak. Hala, aspaldian dagoen beharra aseko litzateke.

UR KONTAGAILUEN IRAKURKETA

lastik ur kontagailuak irakurtzeko ordenagailua eta sistema informatikoa daude. Gaur egun, herriko langileak egiten du lan hori, arduratzen du hori berriz enpresa bati eman beharrean. Gastua ttitkitzea ekarri du horrek, bitartekaririk ez dagoelako.

BERRIZAUNGO ETXOLA

Arantzeta eta Igantziko Herriko Etxeek elkarrekin, Igantziko Bentetan dagoen eta lehen Correoaren erabiltzen zuen etxola, autobus markesina egiteko proiektua egin eta dirulaguntza eskatzea erabaki dute. Etxola bi herriena da, eta hondatzen ari denez, autobusa hartzeko idorpea irtenbide egokia izan litzateke.

AHUNTZAK, ZAKURRAK ETA ZALDIAK

Azken boladan, mendibazterretan ahuntzak omen dabilta. Eta plan-

ta berrietan kalte dezentet eragiten ari direla eta, Udalak ahuntzen jabeek hauek toki itxian edukitzeko dei berezia egin die. Herriko ordenantzen arabera, ahuntzak mendian libre uztea debekatua dago. Helburua mendiko landareek bizirautea denez, arazoak segitzen badu, neurri gogorragoak hartu beharko direla iragarri du Udalak.

Bertzalde, zakurrak herrian barna aunitzetan lotu gabe ibiltzeak herriko ixkina guztiak zikintzea dakar. Ahal den kasuetan, inongo ardura-

rik gabe herrian barna libre ez uztea eta kaka egiten dutenean biltzeko eskatu du Udalak.

Horrez gain, maiz plaza zako burdinazko barandara zaldiak lotzen dira eta azienda horiek ere beuren egin beharrak hortxe uzten dituzte. Gainera, ondoan dabilenarentzat arrakatsak izan daitezke.

Honekin guztiarekin, Udalak ez du inondik inora azientzak herrian ibiltzeko eskubidea kendu nahi; soilik herria txukun mantentzeko denaren parte-hartzea da eskatzen duena.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRAK UTZITAKOA

Lau mutikoren Jaunartzea

Argazkiko lehenbiziko lerroan ageri den laukote honek Lehendabiziko Jaunartzea egin zuen ekainaren 6an: Aimar Zubieta Larretxea, Igor Altzuri Otxoteko, Julen De La Loma Bergara eta Jon Zabala Iparragirrek. Eguraldi txarra zela eta, ez zen ohiko prozesiorik egin Besta-Berri Egunean, baina seguru laukote honek eta euren familiek egun ederra pasatu zutela.

HONDAKINAK

Konposta egiteko 3. fasea zabaldu da Bortzirietan

TTIPI-TTAPA

2008an hasi zen Bortzirietako Hiri Hondakin Mankomunitatea, zabor organikoa murriztu eta etxean konposta egiteko kanpainarekin lanean. Geroztik bi fase egin dira, eta guztira 181 familiak eta 2 eskolak hartu dute parte. Baina jendearen erantzuna handia izan delako eta familia gehiagok interesa agertu dutelako, hiru garren fasea martxan paratzea erabaki du Mankomunitateak, Nafarroako Partzuergoarekin batera. Horretarako izena emateko epea zabalik dago eta parte hartu nahi duenak abuztuaren 31 baino lehen deitu beharko du: 948 635 254 edo 670 522975-ra. Etxeko sukaldean sortzen den zabor organikoa ongarri bihurtzen du konpost makinak. Sukaldean materia organikoak gainerakoetatik bereizi eta makinara bota, eta konposta egiten du, ongarria, alegia. Eta lorategi eta baratzeetara botatzeko prest dago. Aipatzekoa, bertalde, egunero sortzen den zaborraren %45a janariaren soberakinak direla, hau da, zabor organikoa.

BERA Zure ingurua klase guztietako insektuz (xomorra, zinoarra, armiarma, kukuxu...) eta erratoi xaguetaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zabalain, 42 A • BERA

ZUBIONDO Jatetxea

lagardotegia jatetxea

Alasta karrika

BERA NAFARROA

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 • BERA

AISIALDIA → UDAKO OPORRAK

Natalia Arretxea eta Sara Salaberria izanen dira ludotekako arduradunak

Hilabete batez goizero elkartuko dira gaztetxoak

Jaione OTXANDORENA

Bertze urte batez ludoteka zerbitzua antolatu du Guraso Elkartek neska-mutikoendako, eskolako oporrak hartu orduko, aspertu ez daitezzen. Eta arduradunak zein izanen diren ere erabaki du: Natalia Arretxea, aitzineko bi urteetan begiralea izan dena, eta Sara Salaberria. Bi hauek izanen dira hilabete batez, 09:00tatik 13:00-etara, gaztetxoekin egonen direnak. Hilabete horretan gisa guztietako jarduerak egingen dituzte: eskulanak, kantuak, jolasak eta herrian barna ateraldiak ere bai.

Ulibeltzak Elkartek aukeratu du proiektua

Egoitza haunditu nahi zuela eta, Ulibeltzak Elkarteko zuzendaritzak bilera batera deitu zituen bazkideak ekainaren 12an. Bi proiektu atera zituzten mahai gainera eta botazio bidez, egokiena lehenbizikoa zela aukeratu zuten bildutako bazkideek, hau da, egoitzaren oraingo zatia bere horretan utzi eta erositako zatian, komunak eta bulegoa moldatu eta mahai gehiago jartzea.

Gogoratu, bertzalde, proiektu honi laguntzeko aukera dagoela Nafarroako Kutxako Zuk aukeratu, zuk erabaki ekimenaren bidez. Hau da proiektuaren zenbakia: 21.041.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Ikasturteari amaiera ona emateko Senda Viva

Klaseak akitzeko aste bat falta zela, ekainaren 18an, Arguedasen dagoen Senda Viva parkera ateraldia egin zuten eskolako haur eta irakasleek. Ikasturte honetako azken ateraldia izan zen. Goiko argazkia ez da Senda Viva-
ra egindako irteerakoa, baina ikasturte honetan bertze hainbat toki ere bisitatu dituzte, eta horien artean, maiatzaren 27an Bertizko Natur Parkea. Ordukoa da argazkia. Orain uda guztia aitzinetik dute indarrak berriro eta berriro irailean ikasturtea gogotsu hasteko.

USOA
nekazari kooperatiba
ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
Iturgintza - gasa
kalifikazioa
Tfnoa: 629449602 • BERA

BIDASOA
TOLIKAK - PERTSIANAK
KOTURAK - AUTOMATIZAKIAK
MOBILITATEK - KONTINUITATEK
T/F: 943 61 50 60
Auzokari Lopez de Etxezarri
BILBO

ASISTENCIA DOMICILIARIA
ZENTURIA
Zure zerbitzura egunko 24 orduak...
... urteko 365 egunak

- Arreta personalizatua - garbitasuna - Jaiki Oheratu
- Familia-laguntza - etengabeko laguntza
- Etxeko laguntza - garbitasuna - konpainia
- Fitoterapiak - produktu naturalak
- Fisioterapia - errehabilitazioa etxean
- Asteburuak - familiaren atsedenaldia
- Gauak - ospitaleu/etxea
- Barneko langileen kudeaketa
- Prestazio ekonomikoaren kudeaketa (mendekotasun legea)

ZENTURIA-rekin ETXEAN BEZALA INON EZ!

Telefonoak: 943 639 049 - 656 737 698
Juncal kalea, 24 - solairuartera- 20304 Iruñ
ayudadomiciliaria@zenturia.es
www.zenturia.es

TNC PUERTAS NUEVA CASTILLA
AGENTEA ANTTON LEGORBURU GOÑI

Ate berriak kolokatu eta reparazio lanak

Mugikorra: 670 497 485 • Tailerra eta faxa: 943 630 774

NARBARTE



UTZITAKO ARGAZKIA
Eguneko bi protagonistak: Rikardo eta Basilio.

APUSTUA → AIZKOLEGIRA OINEZ

Iskumina sortu du Rikardo eta Basilioren arteko apustuak

Bortz minutuko
alde aterata
Rikardok
irabazi du

TTIPI-TTAPA

Inguruko herrietan ez ezik, Narbarten ere apustua egin da berriki. Maiatzaren 30ean bi gaztek egin zuten: Basiliok eta Rikardok. Aizkolegira igotzea zuten helburu bi gazteek, eta

baldintza nagusia Rikardo Basilio baino hamar minutu lehenago ateratzea zen eta oinez soilik egiten ahal zutela proba hau.

Ikusmin haundia sortu zuen apustu honek eta azkenean, Rikardo atera zen garai-le, bortz minutuko alde aterata. Helmugan, lagun eta ezagun asko izan ziren eta bazkari goxo batekin ospatu zuten eguna.



UTZITAKO ARGAZKIA

Giro onaz gain, beroa eta euria Bertizarana Egunean

Bertizarana Eguna ospatu zen ekainaren 5ean. Egunez, krosa, dantzak eta hainbat ekintza izan ziren. Eta horrekin batera, giro paregabea eta bero haundia ere bai. Baina gauean, euria leher hasi zuen eta argia ere joan zen. Hortaz, Triki-dantzen emanaldia bertan behera gelditu zen. Hala ere, bestak ordu tikiak arte iraun zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Besta Berriko prozesioa

Ekainaren 6an, besta berriko prozesioa egin zen plazan.

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUJN

bentamiguel
denda, jatebidea eta ostalua

Ongi zaizduteko sukaldaritza
Menuak aukeratu

Txabakoa
Likorrak
Janandenda
Urdaitegia

Ibardingo Lepoa • 948 631 209

Zure laguntza eskertzeko, boltsa eder hau opari izanen duzu!

Ttipi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!

proiektu zenbakia:
15.996

GIZARTEA → ADINEKOENTZAKO EGOITZA BERRIA

Eguneko Zentroa egiteko hasierako fasea Mariezkurrena enpresak egingen du

Espainiako Gobernuak %100ean diruz lagunduko du

DATUA

453.708

TTIPI-TTAPA

Eguneko Zentroa egiteko Udalaren asmoak aitzinera segitzen du. Lehen faseko lanak esleitu ditu dagoeneko eta Mariezkurrena enpresa izanen da, 453.708 euroko aurrekontuarekin, hasierako lan horiek egingen dituen. Ekainaren 7an egin zuen esleipena Udalak.

Obra hauetarako Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate Departamentuari laguntza eskatu dio Udalak. Dena den, aipatu diru kopuru hori Espainiako Gobernuak %100ean subentzionatuko du, E-Plana delakoarekin.

Obrak Herriko Etxean

Sarbidea hobetu eta oztopo arkitektonikoak kenduko ditu Udalak Herriko Etxean. Hori egitea 103.708 euro kostako da eta Udalak lanak nork egingen dituen ere erabaki du: ekainaren 1ean Elizaga enpresari esleitu zion.

Obra hauetarako ere Espainiako Gobernuaren E-Planaren bidez %100eko dirulaguntza egonena da.

Gaur egun, udal bulegoak eraikineko lehen-

EURO
kostako da Eguneko Zentroa egiteko lehenbiziko fasea.
Espainiako Gobernuaren E-Planarekin osotasunean subentzionatua dago.

biziko solairuan daude. Eta obraren helburua oztopo arkitektonikoen legea betez, egokitzea dela aipatu digu alkateak, «eta horretarako, bertzeak bertze, igogailu bat paratzea ezinbertzekoa da».

IAT udan zabalik

Lanak bide onetik badoaz, IAT edo Ibilgailuaren Azterketa Teknikoak egiteko zentroa uda honetan martxan jarriko dela baieztatu dio alkateak TTIPI-TTAPARI. Ibarburu aldean egitekoa den zentro berri honen ardura Tüv Rheinland Iberica enpresak hartu du, eta proiektua apirilaren 21ean aurkeztu zuen Udaletxean.

Herri krosa

Aitzineko alean aipatu bezala, gogoan izan, Erreka Kirol Elkarteak antolatutako Herri Krosaren XXXII. edizioa igande honetan, ekainak 27, egingen dela.



ARGAZKIAK: ERREKA ELKARTEA

Giro ederrean Errekaren Eguna

Eguraldia ez hain ona, baina giroa ezin hobea. Horrela joan zen Erreka Elkartaren Eguna. Elbrusera Errekako mendizaleek egindako igoeraren proiektioarekin hasi ziren ekitaldiak, eta ondotik egin zen mus txapelketan, berriz, Libo eta Fermin nagusitu ziren, finalean Iban eta Alfredori irabazita. Baina ekitaldi gehienak larunbaterako utziak ziren. Egun osoan hainbat kirol ekitaldi izan ziren, eskubaloia eta judoaren inguruan beti ere. Interes handia piztu zuten partidak hainbat izan ziren, eta horien artean, jubenil mailako mutikoen garai bateko jokalarien kontra jokatu zutena. Azken hauek garbi erakutsi zuten eskubaloian aritzea ez zaiela atzendu. Halere, ikusminik handiena, Errekako senior taldeak izarren konbinatuaren kontra jokaturako partidak sortu zuen. Izarren artean, Niko Mindegia eta Ibai Meoki herritarrak izan ziren, baina baita Chavarri eta Capón atepean, Muiña, David Rodriguez, Agirrezabala anaiak, Julen Lopez, Tajadura, Eloy Gonzalez, Crowley edo Borragan. Lehia estua izan zuten eta azkenean izarrak nagusitu ziren, 37-38. Dantza taldeak ere emanaldi polita eskaini zuen eta gero sariak zozketatu ziren. Euriak ere Santa Luzia plazako afarian bildu ziren 200 lagunei bisita egin zien, baina ez zuen jendea mugiarazi. Omenaldien txandan, entrenatzaileei esker ona erakustez gain, Dolores Urrozi omenaldia eskaini zitzaion, lore-sorta, oroigarria eta Erreka elkartaren eskudoa zeraman mandarria oparituz. Txomin Mindegia aurkezpenean erran zuenez, «seguru aski Errekaren historian gehien merezitako omenaldia».

OGI BERRI
ARTESANOS PANADEROS
GURE GOZOTEGIA

Ogi freskoa egunero eta egun guzian
Goizeko 7:30-21:00
23 ogi mota ezberdin
Gozotegia: tarta eta pastelak aukeran
ENKARGUAK HARTZEN DIRA
Parrókia, 19 • DONEZTEBE • 948 450 624

ITUREN

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 26AN

San Juan Bezperako besta eginen da larunbatean Aurtitzen

Bertzeak
bertze, musika
eta afaria
izanen dira

Arkaitz MINDEGIA

Garai batean, Bete-neko atarian berendu-afaria eta Dantza Luzearekin ospatzen zen San Juan Bezpera Aurtitzen. Baina joan den urtean berriz ere besta hori berreskuratu egin zen.

Aurtengoa, larunbat honetan, ekainak 26, izanen da. Arratsaldean herriko trikitilari gaztetxoek herrian barna itzulua eginen dute eta

ondotik afaria izanen da elkartean. Apuntatu nahi duenak herriko gazte bati abisatu beharko dio. Afaldu ondotik dantzaldia izanen da akordeoi-lariarekin.

Obra berriak

Udaletxeko eta Aurtizko frontoiko teilatuak konpontzeko deialdia egin du Udalak. Interesatuak uztailaren 2ko 14:00etarako aurkeztu beharko dituzte euren eskaintzak Herriko Etxean.

Aurtizko frontoiko obran, teilatua osorik berrituko da, eta udaletxekoan, berriz, teila

zaharrak kendu, behar den tokietan berdinu, teila berriak arrastrelekin paratu, eta teilatu-hodiak, zorrotan eta lau sabaileiho ere paratuko dira.

Filma grabatzen herrian

Ekainaren 21ean hastekoa zen Imanol Rayo film zuzendaria

Bernardo Atxaga idazlearen *Bi anai* nobelan oinarrituz, filma grabatzen. Horretarako, Iturengo kaleak aukeratu ditu, Lesaka eta Artikutzako parajeekin batera. Grabaketak uztailaren 30era arte iraunen du.

Gure herrietan dau den harrizko etxe eta kaleengatik aukeratu ditu Imanol Rayok.

Elektraren partaidetza-titulua enkatean

Iturengo Elektra SL elkartean dituen partaidetza-titulua enkate publikora atera ditu Udalak. Enkatean ezarritako oinarritzako prezioa 265.000 eurokoa da eta hilaren 15etik hasita, 15 eguneko epea izanen da eskaintzak aurkezteko.



ARGAZKIAK: MIRIAM ALTZURI

Sanjuan Suak

Herri aunitzetan bezala, Ituren eta Aurtitzen ere Sanjuan Suak egiten dira. Barri-deka elkartu eta afari-berendu goxo baten ondotik, su saltoak hasten dira. Herriko gaztetxoek egunak daramatzate papera eta kartoiak biltzen.

- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

UDALA → AZPIEGITURAK

Uhaldeko teilatua konpontzeari uztail hasieran ekin nahi dio Udalak

Auzolanean eginen dira lan hauek

DATUA

60.000

Fermin ETXEKOLONEA

Laster hasiko dira sekretarioaren etxeko edo Uhaldeko teilatua konpontzeko lanak. Uztail hasieran hastea da Udaren asmoa, eta bere garaian aipatu bezala, auzolanean eginen lirateke. Esan beharrik ez dago, teiltuaren egoera ez dela batere ona, eta Udaren lehentasunetako bat da moldatzea.

Eguraldiaren araberaz zehaztuko dira auzolanerako egunak, baina horren berri Udalak aurretik jakinaraziko du.

Aurkidiko pistako lanak akituak

Sasoi enpresak akitu ditu dagoeneko Aurkidi aldeko pistak egin beharreko lanak. 60.000

EUROKO aurrekontuarekin egin dira Aurkidi aldeko pistak lanak.

euroko aurrekontuarekin, konponketak egin dira eta txukun gelditu da bidea.

Euskaldun berriak uztailean

Euskara praktikatzera etortzen direnekin, ez da garai batean adinako mugimendurik izaten orain herrian, baina bakarren batzuk etorriko dira aurtengo ere euskara maila hobetzera. Penta eta Xapako bordan, esaterako, euskaldun berriak hartuko dituzte uda honetan. Lehenbiziko ikasleak uztailean etorriko dira.



ARGAZKIA: O. MINDEGIA ETA O. ELIZALDE

Eguraldi txarra, baina giro ona

Eguraldi kaskarrari aurpegi ona paratuz, 52 lagun elkartu ziren Oritzako bestan. Haur, gazte eta helduek ederki pasatu zuten eguna, Aurtizko Oihana Mindegia eta Oihana Elizalderen musika doinuen laguntzarekin.



ARGAZKIA: JAIONE TELLETXEA

Maritxu, Rufina, Mikela eta Joakin omenduak

Aurreko alean iragarri bezala, Arkupeak Elkarteak 85 urte bete dituzten lau herriar omendu ditu aurtengo: Maritxu Santesteban, Rufina Elizalde, Mikela Baleztena eta Joakin Santesteban. Hiru emakumezkoek ekainaren 3an Gorraizen egin zen bestan ederki ospatu zuten Arkupeak-eko gainerako bazkideekin, eta ordukoa da argazkia. Joakinek, berriz, ezin izan zuen joan.

BEZERO AGURGARRIAK

Gasa eta elektrizitate kudeaketak egiteko Iberdrolako Puntu berri honetan aurkituko gaituzue:

AMAIUR ALTZARIAK

Rosa Seminario, 13 - DONEZTEBE
T. 630 77 96 36

Astelehenetik ostiralera
09:00etatik 14:00etara

www.iberdrola.es



IBERDROLA

HOBETO bizi!

- Eskailerak igotzeko aulkak, plataformak, igogailuak.
- Gurpil-aulkik, makulak, taka-takak.
- Bainugelen egokitzak.
- Higiene pertsonalerako tresna egokituak.
- Janzten laguntzako tresnak.
- Etxeko tresneria egokituak.
- Segurtasunerako alanak.
- Telefono bereziak.
- Errehabilitaziorako artikulak.
- Joku bereziak.

www.hobetobizi.net

Fuenterrabia, 37.aren parean • IRIJUN • T. 943 633 014

EZKURRA

GIZARTEA → MEMORIA HISTORIKOA

Makiei buruzko informazioak interesa piztu du eskualdean

Gure lurretan lurperatu zituzten makiekin gertatu zena argitu nahi da

Fernando ETXEBERRIA

Interes haundia sortu du eskualdean Eratsungo mendian lurperatu zituzten makiei buruz TTIPI-TTAPAn informazioa argitaratzeak. Gertaera triste hura argitzea da helburua.

Duela bost urte Aranzadi Zientzia Elkarteak arduradunak makiak lurperatuak izan ziren ingurua aztertzeraz etorri ziren, eta Lurdes Juantorena eratsundarrarekin egindako elkarrizketaren bideoa ere argitaratu zuten. Lurdesek gertaeraren berri eman zuten Aranzadikoei, berari amak kontatu bezala. Berriz izan gara lurperatutako tokian eta lekua bat dator. Antza denez, makiak bereizita sartu zituzten hilobietan.

Eratsundar batzuen hitzetan, makietako bat Gernikakoa (Bizkaia) zen, eta badirudi medikua zela eta ezkondua zegoela. Hil aurretik bere familiari eskutitza bidaltzeko baimena es-

katu omen zuen, baina ez zioten utzi.

Ehiztariak kexu

Malerrekan, Euskarari Bai kanpaina abian

jarri zenetik hilabete batzura, zenbait ehiztari kexu agertu dira kanpaina Txantxagorri elkartera ailegatu ez delako. Izan ere, elkar-

ko kartel guztiak gaztelaniaz daude. Duela gutxi arte euskaraz idatzitako zeuden, eta berriz ohitura hura hartzeko eskatu dute.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Toki honetan lurperatu zituzten makiak.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Aroaren Lehenengo Jaunartzea

Garai honetan herrian ohikoa den bezala, aurten Aroa Noble Floresek Lehenengo Jaunartzea egin du. Mezaren ondotik, familia Barranka ostatuan bildu zen. Argazkian neska gaztea atautxi-amatxirekin ageri da.

LANA

Lanpostuak sortzeko lanean ari dela adierazi du Cederna-Garalurrek

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Mendialdean lanpostuak sortzea Cederna Garalur elkartearen lehentasunetako bat dela berretsi du elkartek. Eta bide horretan, eskualdearen aktore ekonomiko garrantzitsuenak diren enpresa eta etorkizuneko enpresariekin lanean ari dela adierazi du. Mendialdea turismorako erakargarria dela iritzita, turismo alorra hobetzeko egitasmoak dituzte esku artean. Horien artean, Europako Zaldi Ostatuaren Sarea. Zaldiaren inguruan sortu den proiektu berritzailea da eta aitorpen turistiko berria emanen lioke eskualdeari. Iaz landutako bertze proiektuetako bat, Bilera-Turismoa da, azpiegitura publikoen erabilera espezializatua laguntzeko sortua. Cybersudoe proiektua ere Cederna Garalurren egitasmoetako bat da. 2009tik ari da honekin, eta teknologia berrien bidez enpresa tiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzea du helburu. Gisa berean, laster enpresen atari bat ere egingen da. Eta hemen, enpresa tiki eta ertainek informazioa eta esperientziak elkartrukatzeak aukera izanen dute. Garapen jasagariaren alde ere segitzen du Cedernak.

BEINTZAKO OSTATUA
☎ 948 45 00 14
orbel@beintza.com
www.beintza.com
11191 BEINTZA (NABARRA)
ORBELA

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auttoa z/g. 31780 Bera - Nafarroa
t: 948 631 106 w: www.zalain.com

SOULE
hileta artea
Phone: 948 442 444
Mail: 948 444 542
ARGITZUNA

BASOA → DIRU SARRERAK BEHERA

2007tik basoak saldu ezinik, diru sarrerek behera egin dute

50.000 eurotan baloratutako pinu eta izei eremu bat dago

TTIPI-TTAPA

Esan beharrik ez dago, Udalaren diru-iturri nagusia mendia dela. Basoan inbertitu eta saldu ondotik atera izan du urteetan dirua Udalak. Eta horren arabera, egin izan dira gas-tuak ere.

Baina azken aldian basoa ere bete-betean jo du krisiak, eta horrek diru-sarreretan ere eragina izan du. 2007tik ez da basorik saldu, baina aldi berean, gastuak mantendu egin dira azken hiruzpalau urteotan. Momentu honetan,



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Herriaren diru iturri nagusia den basoa krisian dago eta ondorioz, sarrerek behera egin dute.

50.000 eurotan baloratutako pinu eta izei eremu bat dago, saldu gabe.

AURREKONTUA

Udalak 2010erako

onartua duen aurrekontua 271.000 eurokoa da. Dena den, aurrekunitako diru-sarreraren artean dago aipatu pinu eta izei zuhaiztia saltzea.

Obrak

Beheko Karrikan zoladura lanak egiteko asmoarekin segitzen du Udalak. Lan hone-tarako onartua dagoen aurrekontu osoa

DATUA

271.000

EUROKO

aurrekontua onartu du Udalak 2010erako.

50.000 eurotan baloratutako zuhaizti bat saltzea aurreikusia dago diru sarreraren artean.

89.954,40 eurokoa da, proiektua, exekuzioa, zuzendaritza eta gainerakoak barne. Eta obran gastatu ahalko den gehieneko kopurua 83.291 eurokoa izanen da.

Nafarroako Gobernuak %70eko dirulaguntza emanen du obra hau subentziona-tzeko.



zugandik hurbil



www.cederna.es
Tel. 948 206 697 Faxa. 948 211 051
e-Posta: info@cederna.es



GOIZUETA



ARGAZKIA: ROSA MARI

Oxeguardaren inaugurazio egunean luntxa eskaini zuten.

ZERBITZUAK → OSTALARITZA

Arrakasta haundiz hasi du ibilbidea Oxeguarda taberna-jatetxeak

Apezetxea
famihiak ireki du
negozio berria

Esteban AROTZENA

Krisi garai hauetan edozein establezimendu publiko irekitzeak suposatzen duen esfortzua estimatzekoa da dudarik gabe. Jatetxe bat baldin bada, are gehiago. Ba, Apezetxea famihiak egin-dako esfortzu horren neurri berekoa izaten ari da ekimenari herritarrak ematen ari diren erantzuna, jatetxea jendez gainezka baitabil orain dela aste batzuk ateak ireki zituenetik.

Asteburu eta jai egu-netara mugatuta dago, oraingoiz, Oxeguarda taberna-jatetxearen eskaintza.

Udako ikastaroak

Eskolako oporrak hartu orduko, udako ikastaroekin hasiko dira neska-mutikoak. Ikastaroetan lehena igeriketarena izanen da. Uztailaren 1ean hasi, eta uztail osoan, egunero Hernaniko igerilekura joanena dira 27 gaztetxo autobusez.

Uztailaren 5ean informatika tailerrari emanen zaio hasiera, eta uztail-eko astelehen eta asteazkenetan eskainiko da. 14 lagunek eman dute honetan izena.

Eskulan eta marrazketa ikastaroak, azkenik, uztailaren 6tik aurrera egiten dira. Oihana irakasle dutela, uztail-eko astearte eta ostegunero bilduko dira. Marrazketan 17 gaztetxo eta eskulanetan 6 apuntatu dira.



ARGAZKIA: SAN MIGEL LIGA

Umore Ona Abesbatza Kursaal


Zeinek esan behar zien Umore Ona Korukoei kantuan hasi eta hiru urteren buruan Donostiako Kursaal aktuatuko zutela? Ba, hantzekoa da argazki hau. Ereñozuko Ozenkikoak eta Hernaniko Kantuz-ekoak dira gainerakoak.



UTZITAKO ARGAZKIA

10 neska-mutikoren Jaunartzea

Atzerapen pixka batekin baldin bada ere, aurten Lehen Jaunartzea ospatu du ten herriko neska-mutikoen irudi eder hau erakutsi gabe ezin ginen gelditu. Manex, Antton, Asier, Ane, Naroa, Eñaut, Ainhoa, Janire, Xabier eta Nerea dira.



ARGAZKIAK: ITSASO LUJANBIO

Eskulan erakusketa

Oihana hernaniarraren agindupean, herriko 23 emakumek egindako eskulan ederrenekin osatutako erakusketa-koak dira argazki hauek.

ABACDEL
Analisi klinikoa
ANÁLISIS CLÍNICOS

- Hematologia
- Odol biokimika
- Eitrosia probak
- Diabetes
- GIB serologia
- Tiroide
- Hormona probak
- Tumore markatzaileak
- Gernu-analisiak
- Elkargaien intolerantzia

Ramón González-Vallina
ANÁLISIS CLÍNICOS Y ESPECIALISTA

Artea - Pasaia
Istingorta, 1 - behea • 20008 DONOSTIA • T. 943 210 872
abacdel@yahoo.es • www.abacdel.com

BESTAK → PRESTAKETAK

Festetan denen parte-hartzea eskatu dute antolatzaileek

Ferian parte hartzeko aurretik eman behar da izena

Ainhoa ANSA

Udako festak gainera ditugu dagoeneko. Auzokoak hasi dira beren ospakizunekin eta Aranori ere helduko zaio txanda konturatu aurretik.

Uztailaren 23an hasi eta 26an bukatuko dira aurtengoak eta Santio Egunaren bezperan, larunbatarekin, azken urteetan arrakasta izaten ari den herriko eskulangileen eta produktuen seigarren Feria ospatuko da eguerdian. Azken urteetan herritarren parte-hartzea haunditu egin da eta aurten ere bide horre-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Santio bestetan, ohiko hitzordua bihurtu da patata tortilla lehiaketa.

tara animatzeko dira ondoko lerro hauek.

Aurren aurreneko gauza, sagardoa eta gazta egiten duten baserriak aipatu nahi ditugu, haien urteko lanari esker Feria egiteko

ideia behin sortu zelako eta, urtez-urte, lan hori mantenduz eta emaitzak herriari eskainiz, festa honi oinarria ematen diotelako. Haien parte-hartzea eskatu nahi dugu, nola bes-

tela, betiko moduan, 6. Feriari ere bixitasun hori emateko.

Eskulangileei ere aipamena. Joan daitezen beren lanak prestatzen aurten ere. Eskuz egindako bitxiak, mar-

golanak, irudiak, apaingarriak, ukenduak... Denek izango dute lekua Ferian.

Ferian dagoeneko ohikoa den patata tortilla lehiaketan parte hartzeko hurrengo deia. Sei arrautzako patata tortilla Feria hasi aurretik San Roke Elkartera ekartzea da eskatzen dena.

IZENA AURRETIK EMAN

Hortik aurrera, basurdea dela, paella dela, izan gozoa nahiz jateko gazia, labetik aterra berria nahiz izozki naturala... Ferian zerbait ateratzeko asmoa duten guztiek 948 514299 telefonora deituz edo bestela Kontsejun aitatuz jakinarazi dezatela asmo horren berri.

Animatu, gozatu eta gozarazi!

Oraindik ez duzu probatu Elgorriagako Bainuetxeko ur gazietan flotatzea?
HAU DA ZURE AUKERA



ELGORRIAGA
BALNEARIO - BAINUETXE

IGERILEKU TERMALEAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA
bakarrik 10€ pertsonako
Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara (bakarrik arratsaldeetan).
Eskaintzaren azken eguna: ekainak 30

BALDINTZAK: ERRESERBA EGIN
BEHAR DA. Ezin zaie bertze eskaintza
edo promozioei gehitu

IGERILEKU TERMALEAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA,
BAZKARIA EDO AFARIA ETA FRESKAGARRIA EDO KAINA
25€ pertsonako astelehenetik ostiralera, arratsaldeetan
28€ pertsonako larunbat goiz eta arratsaldeetan eta igande goizetan.
Eskaintzaren azken eguna: ekainak 30

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) Tel. 948 45 60 45 · www.balnearioelgorriaga.com

LEITZA

UDALA → INTERNETEN

Web orria estreinatu du Udalak: www.leitza.net

Herriari buruzko hainbat informazio bildu dira Interneten

TTIPI-TTAPA

Interneterako saltoa egin du Udalak ere eta atari berria egin du: www.leitza.net. Udalari eta herriari buruzko hainbat jakingarri ageri dira web orrian: zerbitzu eta telefono interesgarriak, Udalaren antolaketa eta dokumentuak, herriaren historia eta bestelako datuak, turismoa, ekonomia, lekua eta jendea, bista birtuala...

Guardetxeko borda informazio puntu

Ixkibarmoldatzekolana esleitu ditu Udalak. Guardetxeko borda informazio puntu bilakatzea da asmoa, informazio panel berriak jarritz, ibilbideak moldatuz eta homologatuz eta atsedenean aldaketak eginez. 130.000 euroko aurrekontua izanen dutelane, baina Turismo Departamentuak %70eko laguntza emanen du.

Bestalde, plazako hartegia informazio puntu bihurtzeko lanek ere aurrera segitzen dute. Lan hau udal langileekin eta auzolanean egingen da.

Korto lehiaketa

Atekabeltza Gaztetxeak korto lehiaketa antolatu du lehen aldiz. Gaia libreza izanen da, eta talde bakoitzak gehienez hiru aurkeztu ahal izanen ditu. Bideoak kamaraz nahiz mobilez grabatuak izan daitezke, baina gehienez 15 minutuko iraupena edukitzen ahalko dute. Gutunazal batean sartu eta DVD batean aurkeztu beharko dira, parte-hartzaileen datuekin, uztailaren 16a baino Atekabeltzeko buzoian.

Eskolako obrak

Asteazken honetan, hastekoak ziren Erleta es-

kolan obrak. Garai bateko maisuen etxebizitzak 12 ikasgela berri sortzeko egokituko dira. Eta aldi berean, Xabier Zabalo alkateak esan digunez, «isolamendu energetikoa ere hobetuko da, eta suaren aurkako araudia beteko da eraikin osoan». 248.000 euro kostako da, baina osotasunean diruz lagunduak izanen da.

Mendi ateraldia

Mendibil Mendi Taldeak antolatuta, Mendaurrera ateraldia egingen da larunbat honetan, hilak 26. Perralekutik abiatu eta Aurtitzera joanen dira, Mendaurigota. 08:00-etan abiatuko dira plaza-tik. Izen-ematea, ostegunabaino lehen: Astiz, Maimur edo mendibilaurrea@hotmail.com-en.



PERTSONAIA
Eneko SARALEGI

Jubeniletan Urrezko Aizkoran irabazle

Gaztea da oraindik, baina aizkora munduan nabarmentzen ari dena. Bere azken garaipena Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketan lortu du, gaztetxoaren mailan, finalean Eloy Corchero arabarra mendean hartuta. Sei enbor moztu behar izan zituzten ekainaren 5ean Azpeitian jokatu zen lehia eta 7:41ko denboran osatu zuen lana. Corcherok, berri, 9:21eko denbora egin zuen. Zorionak!



ARGAZKIAK: HITZA

Kultur Aroak eman du aurtengoa

Aurten bigarren aldiz egin den Sagardo Egunak eman zion Kultur Aroari bukaera. Ekainaren 12an jende asko joan zen sagardoak dastatzera plazara, baina sagardoaz gain, herriko tabernarien pintxoak jan eta bertsoekin goatzeko aukera ere izan zuten bildutakoek. Kultur Aroko gainerako ekitaldiak ere ederki joan ziren. Musu baserriaren alde ekainaren 5ean egindako Euskal Herria kantuz! jaialdia, esaterako, oso arrakastatsua izan zen. Puntako musikariak sosik kobratu gabe aritu ziren, eta herritarrek ezin hobeki erantzun zuten.

Igerilekua zabalik

Eguraldi kaxkarrarekin, baina ekainaren 14an ireki zituen igerilekuak ateak, eta irail erdialdera arte zabalik egonen dira. Prezioak, berri, joan den urteko berdina dira. Azpiko taulan aurtengo kuotak ageri dira. Eta eguneko sarrerak bazkide izan ala ez, lan eguna ala jai eguna izan eta adinaren arabera desberdinak dira. Informazio gehiago: 948 510719.

2010EKO KUOTAK IGERILEKUAN

ADINA	BAZKIDEAK	BESTEAK
0-4 urte	Doan	Doan
5-13 urte	18,30 euro	22,85 euro
14-17 urte	28,50 euro	34,20 euro
18-64 urte	53,73 euro	61,70 euro
65 urtetik gora	28,50 euro	34,20 euro
Abono familiarra*	113,90 euro	125,55 euro
(*haurrak 13 urtez azpikoak)		

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iññea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

FESTAK → GAZTEEK ANTOLATUTA EKAINAREN 25ETIK 27RA

San Pedro festak ospatuko dira ostiraletik igandera

Gazteak prest dituzte ostiraletik igandera-ko egitarauak

Juana Mari SAIZAR

Uda hasierarekin batera, festa usaina nabari da nonahi. Herriko ume eta gurasoek San Juan Bezperarako dena prest utzi eta ekintza hauek egitekoak ziren egunean zehar: arratsalde partean jokoak denentzat, gero afaria plazan, bakoitzak etxetik berea ekarrita eta edaria Guraso Elkartearen esku. Eta azkenik su txikia eta su handia salto egitera animatzen ziren guztientzat.

Gazteak, beraien aldetik, San Pedro jaiak

antolatzen dihardute azken gauzak prestatuz. Asteburu osoko festak dituzte gainean, ekainaren 25etik 27ra.

**Ludotekaren orde-
z, kirol ekintzak**
Kirol Mankomunitateak

beka deialdia ireki zuen kirola egiten duen edonorentzat. Eskabideak udaletxean egin dira eta honekin batera aurtengo uztailean ludotekarik ez zabaltzea erabaki da. Horren orde-
z, Kirol Mankomunikateak

Guraso Elkartearekin batera, aire librean jokoak, kirolak eta hainbat dantza antolatu ditu.

Neska-mutikoak goizetan bilduko dira bi orduz egunero Aldaiaren eskutik.



ARGAZKIA: IGONE GOIKOETXEA UTZITAKOA

San Juan Bezperan bi su egiten dira, txikia gaztetxoagoentzat eta handia helduagoentzat.

FLASH

Interneteko atari berria

Martxan da dagoeneko herriko webgune berria. Herriari buruzko hainbat informazio eskaitzen digu, hala nola, historia, Udalaren zerbitzuak, kultura, ohiturak, argazkiak eta herriko bazterrak. Hau guztia ikusi nahi baduzue honatx helbidea: www.areso.info.

HERRITAR NAHIZ KANPOKOENTZAT

Webguneak hainbat atal ditu, batzuk soilik herritarrei zuzenduak daudenak dira, Udalaren tartea esaterako, eta beste batzuk herrikoak ez direnek ere bisita ditzatekenak; nola iritsi bertara, zer ikusi, non jan, non lo egin, herriaren inguruetan txangoak egiteko azalpenak, zerbitzuak eta geografia, besteak beste. Beraz, aresoar nahiz kanpotik herrira datozenentzat, informazio baliagarria bilzen du.

edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
mainalireak
mantelak
kuxinak
toaillak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

**UDABERRI-UDAKO
KOLEKZIO BERRIA**

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

BAZTAN

BESTAK → AZPILKUETAKOAK UZTAILAREN 6TIK 10ERA

Zikiro Egunean akituko dira bortz egun iraunen duten sanferminak

Egun horretan, bazkalondoan txapelketak jokatu dira

ASTEARTEA 6

21:00etan Ezkil-jotzea.

ASTEAZKENA 7 San Fermin Eguna

10:45ean txupinazoa. **11:00etan** Meza Nagusia. **Ondotik** luntxa elkartean. **18:00etan** frontenis txapelketako finala eta sari banaketa. **20:00etatik 21:30era** dantzaldia JOXE ANJELEkin. **21:30ean** Baztan-Zopak. **Ondotik** dantzaldia JOXE ANJELEkin.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurtengo sanferminetan gazteen bazkaria ortziralarekin egingen da. Seguru ez dutela ez Iruñian eta ez Lesakan daudenen inbidiarik pasako!

ORTZEGUNA 8 Haurren Eguna

16:00etan mus txapelketa eta ondotik sari banaketa.

16:30ean txo txongiloak: *Ipuin magikoak* (Udalaren laguntzarekin). **Ondotik** txokolatada. **20:00etatik**

22:00etara dantzaldia JOXE ANJELEkin. **22:00etan** tortille pata eta lehiaketa. **Gero** dantzatzeko aukera.

ORTZIRALA 9

11:30ean plater tiroketa lehiaketa eta sari banaketa. **14:00etan** gazte bazkaria. **16:00etan** partxis lehiaketa eta sari banaketa. **Arratsaldean eta gauean** dantzaldia FRANTZISKO rekin.

LARUNBATA 10 Zikiro jatea

08:00etan sua piztea. **10:00etan** gosaria. **14:00etan** zikiro jatea FRANTZISKO akordeoilariarekin. **Ondotik** hainbat txapelketa eta sari banaketa. **22:00etan** afaria. **Gauean** gaupasa JALISKO BAND taldearekin. **Goi-zaldera** GAIXOA NI.



igogailuen instalazioa
Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Gremio guziak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure igogailu instalatzen dizugu

Eskalerak igotzea... ez da oztopo! plataformak igogailu bereziak auki bereziak...

behetik



Aforgo-biki, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.bebetik.com

MENDIALDE Jatorria



T. 948 453 060 AMAJUR
www.mendialdea.com

MENDI ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

ANTXITONEA Turismo



24 ingela biturturekin - Apartaketa
Aste gutxiago gela guzietan - Hain musikala eta TD
Gela berria sukalde eta barra sartzen ari dira



Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

EUSKARA → ERABILERA ETA SUSTAPENA ARAUTZEKO

Eskualgintzak egin duen eskuara ordenantza onartu du Udalak

Eskuaraz bizi nahi duen herritarra eskuaraz bizi ahal izanen dela ziurtatu nahi du Eskualgintzak

TTIPI-TTAPA

Baztandarren hizkuntza eskubideak bermatuko dituen ordenantza aurkeztu du Baztango Eskualgintzak: «Baztango udalerrian eskuararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza», hain zuzen. Bi arrazoi nagusirengatik egin dute araudia: «Baztan eskualde eskualduna» delako eta «Udaleko zerbitzuetan eskuararen erabilera arautzeko eta udalerrian eskuararen erabilera sustatzeko araudi erranguratsu baten hutsunea» ikusten zutelako. Ekainaren 3an aurkeztu zuten ordenantza, Arizkunenea Kultur Etxean egindako prentsaurrekoan.

Eskualgintzako kideek agerraldian azaldu zuten, «ordenantzak eskuarari dagokion marko juridikoa ezartzen dio eta orain arte izan duen egoera minorizatua saihesteko, hainbat esparru arautzen ditu». Udalaren barne-funtzionamendua, kanpo eta barne harremanak, errotilazioak, toponimia, seinaleak eta udal langileen eskualduntzea eta alfabetetzea dira

araudian ageri diren puntuetako batzuk. Baina eskualgintzak argi utzi nahi izan du «araudi honekin ez dela inor eskuaraz solastera edo eskuaraz bizitzera behartuko, eskuaraz bizi nahi duen herritarra eskuaraz bizi ahal izanen dela ziurtatuko baizik».

UDALAK ONARTU DU

Eskualgintzak egin duen ordenantza ekainaren 7ko plenoan pasatu zen Udalaren aitzinetik, eta honek onartu egin zuen NaBairen zazpi botoekin. Lehenbailehen tramitatzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea onartu zuten NaBaik eta UPNk ere, baina edukari dagokionean, UPNko bortz zinegotziak abstenitu egin ziren.

Eskualgintzak aipatu bi alderdiei ez ezik, Ezker Abertzaleari eta herriko alkateei ere aurkeztua die Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin egin duen ordenantza hau.

Cocemfe uztailean eta abuztuan itxita

Maiatz aldera zabaldu zuen Cocemfe Nafarroako Komunitateko Minusbaliatu Fisikoen eta Organikoen Elkarteko Federazioak egoitza berria Elizondon. Orain, ohar bidez jakinarazi duenez, uztailean eta abuztuan itxita egonen da bulegoa. Irailan berriz irekiko ditu



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskualgintzak ekainaren 3an aurkeztu zuen eskuara ordenantza.



TESTUA: MAITE OTEIZA / ARGAZKIA: ONDIKOL

Elizondo obretan

Itxura arras berritzen ari da Elizondo. Espainiako Gobernuak obra publikoetan gatzatzeko Udalari emandako dirua Elizondon gelditu da hainbertze obretako: Baztan pilotalekua –berriki PSN-PSOEk Larrosaren Bestan inauguratua–, zahar-etxea, plaza... Badira obra gehiago ere: Eliza ondoko aparkaleku berria, Merkatu Plaza liburutegi bihurtua, Arizkunenea parean Ahaztuen plaza berria, eta hau Santiago Kariakarekin komunikatzeko Lazaro Hoteleko garajea –desjabetu zutena eta goiko argazkian ageri dena– bota egin dute. Lur azpiko edukiontziak ere hor daude –argazkian– eta Baztan ibai bazterretik ibai-parkea ere egin nahi da (1,3 milioi euroko aurrekontuarekin) elizondorrek eta turistak paseatzeko.

ateak, baina norbaitek elkartarekin harremanetan jarri nahiko balu, 671 421346 telefonora dei dezake. 08:00etatik 15:00etara edozein kontsulta egiten ahal izanen da.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Santiago, 5º 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 816

BAZTAN

LEKAROZ → AROZTEGIA EGITASMOA

Aroztegia proiektua onartu du Udalak ahobatez

Nafarroako Gobernuak du azken hitza

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 7ko udalbatzarrean erabaki zuen Udalak ahobatez, Aroztegia egin nahi den urbanizazio, hotel eta golf zelaia proiektuari baiezkota ematea. Hirigintza Planean egin diren aldaketan inguruan, txosten juridiko eta urbanistikoa egin da eta aldekoa izan da, eta hala, UPNko eta NaBaiko zinegotzi guztiek eman zuten aldeko botoa.

Udalaren behin behineko onarpenaren ondotik, Nafarroako Gobernubideratuko da orain eta honek hartuko du proiektuaren gaineko behin betiko erabakia.

PLATAFORMAREN BALORAZIOA

Aroztegia... eta gero zer? taldeak, bere alde-tik, «egitasm urbanistiko» espekulatzaileari Lekarozko herriak egin-

dako alegazioak baztertu eta egitasmoari bidea eman» izana leporatu dio Udalari. Herriarren erranari Udalak «bertze behin bizkarra eman diola» salatu du. Eta horren inguruan galdetu du, «2005-ean Amaiur eta Arizkun arteko Kisuan egitekoa zen egitasm urbanistikoan (golf-zelaia, hotela eta etxeak) Udalak herriarren iritzia errespetatu zuen, orain zergatik ez?».

Plataformaren irudiko, «afera larria da. Baz-



ARGAZKIA: ZALDUA

Bederatzi gazteren Sendotza Berroetan

Argazkian ageri den neska-mutil kuadrilla honek Sendotza egin zuen ekainaren 5ean Berroetan. Goitian, ezkeretik hasita, Ramon Apezetxea apez, Iñigo Gamio, Mikel Gartziandia Artzapezpikuaren laguntzailea, Andoni Barrenetxe eta Iñaki Gamio. Beheitiko lerroan, berriz, ezkeretik eskuinera: Leire Ramos, Amalur Maritorrena, Iratxe Arretxea, Maialen Iantzi, Alaitz Arretxea eta Intza Gartxitorena.

tanen etheen %22 hutsik egonik, planifikazio urbanistikotik kanpo, eta udal planeako aurreikuspenak oraino bete

gabe, Udalak bertako lurralde antolamendua- ren egitura hankaz goi- ti igortzen duen proiektu bat babesten baitu.

Udalbatzaren akta es- kuratuta, hausnarketa «finduagoa» egingen du- la adierazi du Aroztegia... eta gero zer? taldeak.

Harrobirik ez dutela nahi aldarrikatu dute amaiurtarrek



Amaiurko Munon egin nahi den ofita harrobiaren kontra, 100 amaiurtarretik goiti elkartu ziren

ekainaren 12an Harrobiari ez! aldarrikatzeko. Herritik bi ki- lometrotara eta herriar erdiak

bizi diren baserrietatik 200 me- trotara egin nahi dela salatu zu- ten.

Informatu eta aurrekontua eskatu
Instalazio profesional bat edukitzeko

EROSKETA BIKAINA

Gozatu Kosner markako
aire girotuak
eskaintzen dizun
konfortaz

MENDIKO BIKIKETABAT
OPARITZEN DIZUGU

Oparia zozketarik gabe

H. LOPEZ
T. 948 452 126
Santiago, 93 ELIZONDO • www.honestolopez.com

MERKATARITZA → MERKATALGUNE BERRIA ARRAIOZEN

Aste honetan zabalditu ateak Nafar Mendi merkatalguneak

Hipermerkatuaz gain, ostatua, jatetxea, haurrentzako parkea, dendak eta gasolindegia ere baditu

TTIPI-TTAPA

Zabalik dago Arraiozko merkatalgune berria. Nafar Mendi du izena eta asteazken honetan, ekainak 23, ireki zuten. Hipermerkatuaz gain, ostatua, jatetxea, haurrentzako parkea, dendak eta gasolindegia ere baditu

Proiektu honen bultzatzaileak bi anaia dira: Esteban eta Pierre Elorga. Sortzez Bidarraikoak baina aita eta amaren aldetik, Baztanen familia dutenak. Eta ikasketak akitu eta Frantzia aldean lan esperientzia eskuratu ondotik, Nafarroako mendialdean gisa honetako saltokiek zuten «hutsunea betetzea» izanen da euren helburua. «Komertzio klase horrek aldatu ditu gure erosteko moduak eta gaurko egunean, neke da horiek gabe bizitzea».

Produktu freskoak, egunean egunekoak, banatzea izanen da Nafar Mendiren xede nagusia,

eta adierazi dutenez, ahal bezain prezio merkeenetan. Horrez gain, bertako nekazal produktu eta eskulanei ere ateak zabalik daudela aipatu dute Elorga anaiek.

Hipermerkatuaz gain, ostatu bat pintxoekin, jatetxea, haurrentzako Txiki Park, dendatikian dana eta gasolindegia ere izanen ditu Nafar Mendik, «lekuko preziorik hoberenetan».

Eskoletako kontzertua

Ikasturte osoan, asteazkenero biltzen dira herrietako eskoletako 3.-etik 6. mailara bitarteko ikasleak Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean, ingelesa, musika eta gorputz hezkuntza lantzeko. Eta ikasturteko hondar asteazkenean, kontzertua eskaini eta Elizondoko igerilekura gaten dira. Hasiera batean, Elizondoko ikastetxean egiten zen jaialdia, baina lekua gero eta murriztago izanik, Iruritako Gizarte Bilgunerateraman zen. Aurtengo saioa ekainaren 16an eskaini zuten, eta Cristina Urtasunen zuzendaritzapean eta Estiburen laguntzarekin, denek ederki gozatu zuten.



ARGAZKIA: UDALA

Liburutegi berria hornitzeko lanak aitzinera

Merkatu Plaza Udal Liburutegi bihurtzeko lanak aitzinera segitzen dute. Udalak liburutegia hornitzeko lanak esleitu ditu eta 90.000 euroko aurrekontuarekin Mobopas enpresa izanen da altzariak paratuko dituen. 11 eskaintza aurkeztu ziren eta aukeraturakoak 90 eguneko epea izanen du lanak akitzeko. 378,98 metro koadro-tan, gune hauek izanen ditu: sarrera eta kontrol gunea, bi bainugela, ikus-entzunezkoen hemeroteka, Internet gunea, interes zentroa, irakurketarako guneak, bilategia, terraza, talde lanak egiteko txokoa... Kristal haundiak paratu dituzte, eta hauek Bazarren ibaiak ikus daiteke. Virginia Aleman alkateak adierazi digunez, «ohiko liburutegi kontzeptua gainditu, eta teknologia eta euskarri berriak edukiko ditu».



ARGAZKIA: UDALA

Elizondoko Herriko Etxeko teilatua lanean

Hasi dira Elizondoko Herriko Etxeko teilatua konpontzen. 106.756,66 eurotan Zurekin Teilatuak enpresak eginen ditu lanak, eta osotasunean Udalak ordainduko ditu. Aipatu, bertzalde, beheko eta lehen solairuak berritzeko asmoa ere baduela Udalak, baina hori teilatua konpontutakoan egingen litzateke.

HERRIKO ETXERAKO ERANTZAKOIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
Tel: 0535342519
Maztan eta Vitorique
SARA

ARMUA JATETXEA
Tel: 948 580 131
Elizondoko Herriko Etxearen
LORAZULO

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA

• Zuzeneko Anzabalekoak
• Autua, etxebizitzak, ibilguru eta bitxitza aniztasunak
• Lan aholkularitza
• Nominak eta Aseguru Sozialak
• Aholkularitza fiskala
• Errenta Deklarazioak, BEZa...
• Inprimakia
• Baserrak, berrak, pisuak, etab... salmenta eta alokairua
• Gendakia
• Bulgarien transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago, 15 • ELIZONDO • Tel eta Faxe: 948 580 804
anzabal@anzabal.com



*Neurrira egindako leihoak
Diseinu eta modelo ezberdinak
Banakako soluzioak
Isolamendu termiko eta akustikoak
Energia aurrezpenak*

Ordoki industrialdea • ARIZKUN
Tel. 948 453 259 • Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa salmenta eta instalazioa



OBRA BERRIETAN ETA BERRIKUNTZETAN ESPEZIALIZATUAK

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

OSASUNA → ZERBITZU BERRIA EKAINETIK AITZINERA

Ebakuntza ttikiak egiteko zerbitzua eskainiko da Urdazubin asteazkenetan

Asteazkenetan Zugarramurdin ez da izanen kontsultarik

DATUA

13:00

ETAN

hasita eskainiko da asteazkenero zirujia ttikiak egiteko zerbitzua Urdazubiko kontsultategian.

Koro eta Margari

Ekainetik aitzinera medikuak operazio ttikiak egiteko egun bat eskainiko du: asteazkenetan izanen da, 13:00-etatik aitzinera Urdazubin. Baina horrek, aldi berean, aldaketa ekarriko du, asteazkenetan Zugarramurdin ez baita mediku kontsultarik izanen. Eta behar izanez gero, Urdazubikora gan beharko du gu herritarrok.

Dantza ikastaroa

Ekainaren 10ean eta 14an Muxiko eta pausu berezi batzuen ikas-

taroa egin zen Zugarramurdiko Akelarrean, Oskorriren ikusizun berrian eskaintzen diren dantzenak, hain zuzen.

Erran beharra dago, ikastaro hau Baztango dantza taldeko bi kidek erakutsi duten borondateari esker izan dela posible: milesker aunitz Mari Kruz eta Amadeo.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Besta-Berriko prozesioak ez du hutsik egin

Larunbatarekin, ilunabarrean egin zen Besta-Berriko prozesioa. Bi aldare eman ziren (kaperan eta elizargietetan), eta hainbat haur protagonistak sentitu ziren, batzuk estandarteak eramanez laguntzen eta bertze batzuk loreak botaz.



XORROXIN IRRATIA

uztailaren 24ean
ELIZONDON

BEHIKAKA.COM

(2)

ZOZKETA MUNDIALA !!

SENPERE

GIZARTEA → OMENALDIA

Jeanine Sein serorari Frantziako ohorezko medaila eman dio justizia ministroak

Afrikan egin
duen lana
eskertzeko
eman diote

Franck DOLOSOR

Jeanine serora senpertarrari Frantzian den ohorezko ikurrik haundiena eman diote Amozko Blankartegian ereiarioaren 5ean. Michèle Alliot Marie justizia ministroak sari hau eman dio 37 urtez Afrikan, Bolikostan, egin duen lana eskertzeko. Jeanine Seinek 70 urte bete ditu aurten eta mende erdia badu serora egin zela.

Erizain, irakasle, preso-en bisitari, burutik eridirenen zaindari... denetik egin izan du Afrikan. Baita hango mintzaira ikasi ere hobeki integratzeko! Ahoz aho laster hedatu zen behartsuen artean eta laguntzaile paregabea izan zuten, lehenik Nielle herrian eta geroago Korogon. Medaila ematearen bestan, Jeanine Seinek bihotzetik es-

kertu ditu sari emailak; herritarrak, urteetan ematen diote laguntzagatik; bere anaia Grégoire etxegintzan aritua, ospitale bat Afrikan altxatzen lagundu baitu eta Alliot Marie bera, defentsa ministroazalarik Frantziako soldaduek laguntza eman baitzioten Bolikostan ka-

lapitak gertatu zirelarik. Jeaninek oroitarazi zuen serora sartu zela Marie Jeanne Arribillaga irakasleak gogoia eman baitzion. Eliza andereak go-goan izan zuen Xabi Camino Togorat gana den amoztar gaztea. Bere erranetan, «gazteriari on egiten zaio munduan bar-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Justizia ministroa ohorezko saria ematen Jeanine Seini.

na ibiltzea eta behartsuak laguntzea».

Sari ematearen eta Amozko kaperan ospa-

tu zen mezaren ondotik, kasik 200 lagunek elgarrekin afaldu zuten Blankartegian.

Uholdeak jasan ditu berriz herriak ereiarioaren 17an



Ereiarioaren 17an uholdeak gertatu ziren Urdazuri aldean. Luberriako urtegiak bere lana egin zuen Nafarroatik zetorren ura atxikiz. Uraren maila usaian baino sei metra gorago zen urtegiaren. Dena den, Amezpetu bezalako errekek indar haundia hartu zuten eta tokika gainezka egin zuten.

Kalte materialak bertzerik ez ziren gertatu, eta gainerat aitzineko urteetan baino tikiagoak. Halere, urak osoki estali zituen elizako parkea, errugbi zelaia eta Olaso etxeen aparkalekua, hau da, beti urak errexxi hartzen dituen eremuak. Su-hiltzaileek eta Herriko Etxeko langileek lan haun-

dia izan zuten dena arrimatzeko. 1983 eta 2007ko uholdeetan, jadanik kalteak jasan zituzten herritarrek egun txarra izan zuten eta udatiar batzuek herritik alde egin zuten ez baitzituzten opor guziak euripean pasatu nahi. Itsas beherarekin uraren maila apaldu zen garbiketa lan haundia utziz.



ERRUGBIA → JOAN DEN URTEAN BEZALA

Sarako Izarrako Reichel B mailakoek Frantziako Txapelketa irabazi dute berriz

Urtxintxen 11 urte baino gazteagoak departamentuko txapeldunak dira

Xan HARRIAGUE

Joan den urtean bezala, Frantziako Txapelketa irabazi dute Joan Blancok, Ramuntxo Arizkorretak, Iñaki Petinek, Iñaki eta Xabi Indaburuk, Frederic Lasagak eta Mikael Itoizek. Zazpiak saratarrak dira, baina Lapurdi taldean aritzen dira, alegia, Sara, Senpere, Azkaine eta Donibane Lohizuneko taldeak biltzen dituen elkartearen. Finalean Mauleko taldea hartu zuten menear.



Eskubaloia

Eskubaloiko neskek ere ez dute batere denboraldia txarra egin. 11 urte baino gutxiago dituztenek Departamentuko txapelketa irabazi dute, Irisarriko taldearen kontra jokatu zuten finalean aise nagusituz, 16-7. 18 urte arteko taldea ere oso ongi ibili da aurretik baina finalean ezin izan zuen irabazi.



ARGAZKIAK: XAN HARRIAGUE

Aro zoragarria baliatuz egun polita pasatu zuten Sarako Izarra taldeko lehengo jokalariek eta gaur egungoek. Denak batera hirugarren serieko Frantziako lehen txapelaren 20. urteurrena ospatu zuten, lehenik zelaian elkarren artean lehiatuz eta gero mahai inguruan ederki afalduz.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

EZKONTZAK

Alberto Otxoteko Irastorza eta Garbiñe Mihura Sansiñena, Lesakakoa eta Zugarramurdikoa, ekainaren 12an San Antonen.

Jose Angel Fondon Aznar eta M^a Begoña Altzugarai Lekuona, Zaragozako eta Lesakakoa, maiatzaren 22an Lesakan.

Miguel Altadill Olaberria eta Ana M^a Lazkano Zabaleta, Iruñekoa eta Leitzakoa, ekainaren 4an Leitzan.

Ethienne Barrenetxe eta Nadine Domenger, ekainaren 5ean Saran.

Pascal Ixuribehere eta Karine Toulet, ekainaren 5ean Saran.

Jean François Berasategi eta Aurelie Laborde Labignette, ekainaren 5ean Saran.

Sylvain Morain eta Maitena Agesta, ekainaren 5ean Saran.

Francisco Irigoien Arretxea eta Nerea Telletxea Santesteban, Doneztebekoak, maiatzaren 15ean.

Xabier Bañares Eskudero eta Josune Ziganda Galain, Doneztebekoa eta Larraintzarkoa, ekainaren 4an Donezteben.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Beñat Aiestaran Berruet, Lesakakoa, ekainaren 7an.

Hodei Sagastibeltza Bengoetxea, Leitzakoa, ekainaren 2an.

Aiora Irujo Arrupea, Leitzakoa, ekainaren 6an.

Oihana Elozegi Olano, Leitzakoa, ekainaren 10ean.

Irati Mendiburu Galarregi, Etxalarkoa, maiatzaren 28an.

Xabi Odeau Martinez, Sarakoa, maiatzaren 29an.

Olaia Ezkurra de Oliveira, Doneztebekoa, ekainaren 9an.

Ander Zelaieta Eulate, Donamariakoa, ekainaren 13an.

Xane Lopes Mendiburu, Senperekoa, ekainaren 15ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Josephe Elizalde, Sarakoa, maiatzaren 30ean, 76 urte.

Ignacio Migeltorena Andiaarena, Donamariakoa, ekainaren 1ean, 83 urte.

M^a Carmen Martinez Laskurain, Berakoa, ekainaren 5ean, 86 urte.

Inocencia Urrutia Zozaia, Azpilkue-takoa, ekainaren 8an, 83 urte.

Florentina Iturbide Ordoki, Lesakakoa, ekainaren 9an, 88 urte.

Fermin Altzugarai Igantzi, Lesakakoa, ekainaren 10ean, 55 urte.

Antonio Sarratea Mutuberria, Doneztebekoa, ekainaren 11n, 95 urte.

Josefa Ignacia Sagastibeltza Lasarte, Leitzakoa, ekainaren 10ean, 92 urte.

Isabel Irisarri Uhalde, Elizondokoa, ekainaren 11n, 86 urte.

Agustin Pacheco Pacheco, Elizondokoa, ekainaren 11n, 83 urte.

Cecilio Apeztegia Elizagoien, Irurita-koa, ekainaren 11n, 96 urte.

Dionisio Sagaseta Sagaseta, Narbar-tekoa ekainaren 12an, 72 urte.

Marisol Zubieta Zozaia, Berakoa, ekainaren 12an.

Jose Goikoetxea Etxeberri, Irurita-koa, ekainaren 14an, 93 urte.

Jabier Sanzberro Istilart, Arizkungoa, ekainaren 14an, 85 urte.

Jose Telletxea Alzugarai, Lesakakoa Fresnon.

Juan Jose Azkarate Iantzi, Anizkoa Fresnon.



Fermin ALTZUGARAI IGANTZI

Tantirumairu Ikastola eta Nafarroako Ikastolen
Elkarteko lehendakari ohia

*Gaztaroan ilusio eta ametsez
erein zenuena
urteetako ahalegin itzelez
biziraun arazi duzuna.
Tantirumairu ikastola
Eskerrikasko aunitz.*

Lesakan, 2010eko ekainean



Xebe MATXIÑENA IRIBARREN

Urrozen, 2010eko maiatzaren 24an, 42 urte zituela

*Berdin-berdin da goizean goizetik
edo ilunabarretik,
berdin-berdin da berotan edo
euri tanta bustietan,
berdin-berdin da zaharren hitzetan
edo haurren jolasetan,
berdin-berdin da etxean edo
landan dauden belardietan.
Zure amasa bizirik dago
senitarteko guztien bihotzetan.*

ZURE FAMILIA



Xebe MATXIÑENA IRIBARREN

Urrozen, 2010eko maiatzaren 24an, 42 urte zituela

*Alaitasunetako dizdira
bihotza eta azala
etxetikan belarsoroetaraino
soinean zure galtza urdinak,
Maitasunetako emari betez
niri eskainitako magala
Zure izenak eta izanak
adierazi bezala,
beti nerekin izango dut
eman zenidan maitasuna.*

ZURE BESOETAKO ILOBA

ARTE MARTZIALAK → KENPO KAI

Eskualdeko kirolariek emaitza onak lortu dituzte herrialde arteko txapelketan

200 kirolari inguruk hartu zuten parte Elizondon

TTIPI-TTAPA | ELIZONDO

Herrialdeen arteko kenpo txapelketa jokatu zen ekainaren 5ean, Elizondon, Nafarroako Karate Federazioko Kenpo sailak antolatuta. Eta Nafarroako taldean aritu ziren eskualdeko kirolariek gain, Euskal Autonomia Erkidegoa, Madril eta Frantziakoek ere parte hartu zuten. 200 bat aritu ziren formak (kata), formak armekin, defentsa pertsonala (Goshin) eta borroka (Kumite) lehiaketetan. Eskualdekoak ederki aritu ziren.

KATA ALEBINAK

1. Iraia Gillenea (Bera)

KATA INFANTILAK

2. Margarita Rivera (Bera)
3. Angel Iribarren (Bera)

KATA KADETE NESKAK

2. Daniela Perdomo (Bera)

KATA JUBENIL NESKAK

1. Ana Mitxelena (Urdazubi)

KATA JUBENIL MUTIKOAK

2. Izei Gillenea (Bera)
3. Beñat Garaia (Bera)

KATA GERRIKO TXURITIK MARROIRA EMAKUME HELDUAK

1. Ana Maria Arburua (Bera)
2. Idoia Iturria (Etxalar)



ARGAZKIAK: KORO IRAZOKI

200 bat kirolarik parte hartu zuen Elizondon kenpo txapelketan.

KATA GERRIKO TXURITIK BERDERA GIZON HELDUAK

1. Jon Zelaia (Bera)

KATA GERRIKO URDINETIK MARROIRA GIZONEZKO HELDUAK

3. Luis Mari Altolagirre (Bera)

DEFENTSA PERTSONALA HAURRAK

3. Modesto Ordoki (Doneztebe)

DEFENSA PERTSONALA MUTIL JUBENILAK

2. Izei Gillenea
3. Asier Irazoki (Bera)

DEFENTSA PERTSONALA NESKA JUBENILAK

1. Ana Mitxelena

DEFENSA PERTSONALA GIZONEZKO HELDUAK GERRIKO TXURITIK BERDERA

1. Edorta Iturria (Etxalar)
2. Mikel Lekuona (Etxalar)

DEFENSA PERTSONALA GIZONEZKO HELDUAK GERRIKO URDINETIK MARROIRA

3. Luis Mari Altolagirre

DEFENTSA PERTSONALA EMAKUME HELDUAK

2. Gloria Gonzalo (Bera)
3. Ana Maria Arburua

DEFENTSA PERTSONALA

GIZONEZKO HELDUAK

2. Jose Antonio Dagerre (Bera)

BORROKA MUTIL JUBENILAK

2. Izei Gillenea
3. Beñat Garaia (Bera)

BORROKA NESKA JUBENILAK

2. Ana Mitxelena
3. Daniela Perdomo

BORROKA GIZONESKO HELDUAK

3. Jorge Velez (Bera)

BORROKA HELDUAK GERRIKO URDINETIK MARROIRA

2. Luis Maria Altolagirre

PILOTA → III. EDIZIOA

Errekako buruz buruko txapelketaren finalak jokatu dira

Hainbat kategoriatan bederatzia final egin dira

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Doneztebeko Erreka pilota eskolako III. buruz buruko txapelketaren finalak jokatu ziren ekainaren 11n Donezteben. **Aurrebenjamin** B mai-

lan, Ander Arozenak 18-13 irabazi zion Ander Ruizi eta A mailan, Urko Oiartzabalek 18-11 Pello Seini.

3. mailako **benjaminetan**, Ruben Saldias 18-12 nagusitu zitzaion David Mitxeori; 2. mailakoetan, Jon Zabalak 18-16 irabazi zion Aimar Zestauri; eta lehen mailako benjaminetan, Ibai Erasunek 18-7 loritz Zelaietari.



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXE

Jubeniletako finalistak –Irail Zestau doneztebarra eta Mikel Maia lesakarra–, Eskudero eta Bengoetxea V.a ondoan dituztela.

Alebinetan, Julen Saldias 18-12 irabazi zion Julen Larretxeari; eta **infantiletan**, Aritz Fagoaga 18-17 nagusitu zen Iker Salaberriaren kontra. **Kadete** mailan, Ibai Jua-

nenak 18-16 irabazi zion Ugaitz Elizalderi; eta **jubeniletan**, Mikel Maiak 18-10 Irail Zestauri.

Finalen ondotik sari banaketa egin zen eta irabazleek txapela, azpitxa-

peldunek kopa eta parte-hartzaileek oroigarriak hartu zituzten. Sariak banatzen, bertzeak bertze, Oinatz Bengoetxea eta Iñaki Eskudero pilotari profesionalak aritu ziren.

Etxean ttikitatik ikusi duena afizio hartu eta aizkora bere bidea egiten ari da Oihan Larretxea (Bera, 1990). Ez nolanahaiko bidea, gainera, emaitza onak eskuratzen ari baita.

Azkena Azpeitian ekainaren 5ean lortutako garaipena izan da, Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketan, 23 urtez azpikoen txapela jantzi baitzuen Ugaitz Mugertzari minutu

eta 13 segundoko aldea aterata. Etxean maisu haundi bat izateak, Donato Larretxeak, alegia, aunitz laguntzen diola aitortu digu, eta aitzinera begira segitzeko gogoz dago.

Oihan LARRETXE | Berako aizkolaria

«Atta ondoan izatea erosten ahal ez den gauza bat da»

G. PIKABEA | BERA

Nolako enborra, hala-ko ezpala. Horrela dio erranerak, baina zenbaitetan hala da. Larretxeatarren kasuan behintzat bai. Aizkorarako eta basoko lanerako duen afizioa transmititu dio Donato Larretxeak Oihan semeari. Atta pozik semea attaren bidea egiten ari delako. Eta semeari, berriz, nabari zaio bai atta zenbat miresten duen. Aizkolaria gustukuena zein duen galdetuta, zalantza izpirik gabe erantzun baitigu: «atta».

9 urte zituela eman zuten Oihanek lehen aizkora kolpeak, baina «serio, 13 urterekin» hasi zela kontatu digu. Dena den, «etxean betidanik ikusi izan dut aizkora, eta gustatu egiten zait», gaineratu du. Hortaz, attak gehiegi errepikatu gabe hasi zen bera ere aizkora. Eta lana ere attarengandik sobera aldendu gabe egiten du Oihanek, berekin aritzen baita basoan.

Kirol gogorra aukeratu du duela badaki beratarak, «baina gustatu egiten zaigu eta...», dio. Entrenamenduak «ahal denean» egiten dituela adierazi digu: «lanetik atera orduko berandu izaten da, eta joan, egurra prestatu, entrenatu... denbora aunitz joaten da. Bai-

na Mugairin aunitz laguntzen digute eta hori esker-tekoea da». Asteazkenak hiru aldiz Oronoz-Mugairin duten txokoan egiten ditu entrenamenduak.

Aizkoraz aparte, ordea, bada gustatzen zaion bertze zerbait ere, eta duen adinarekin normala dena: «besta egitea». Aitortu digunez, «gehixko» gustatzen omen zaio. Baina besta utzi eta aizkora aritze hori ere ez zaiola gogorra egiten aipatu digu: «gustatzu gero, dena uzten da».

ATTAK BABES HAUNDIA

Aizkora dabilenetik ondoan eduki du Oihanek atta, eta horrek babes haundia ematen dio

GOGORRA

«Aizkora kirol gogorra dela badakit, baina gustatu egiten zaigu eta...»

URDURITASUNAK

«Nerbiosoegia naiz eta abudoegi hasten naiz aizkora. Attak beti lasai aritzeko erraten dit»

APUSTUAK

«Gerora egingen ditut apustuak, baina denbora aunitz behar da prestatzeko»

gazteari: «atta ondoan izatea erosten ahal ez den gauza bat da». Eta ba omen da attak behin eta berriz ematen dio aholku bat ere: «lasai aritzeko». «Nerbiosoegia naiz eta abudoegi hasten naiz. Beti lasai aritzeko erraten dit». Gainerakoan, lan luzeetan edo motzetan, bietan gustura aritzen dela adierazi digu, eta attari bezala, apustuak ere gustatzen omen zaizkio: «gerora egingen ditut, baina denbora aunitz behar da prestatzeko». Plaza bat aukeratzeko eskututa, berriz, Doneztebekoa egin du: «han aritua naiz pixka bat eta hango giroa gustatzen zait».

Aunitzetan nabarmendu izan da Oihanen kolpea baina bere ezaugarrien bat nabarmentzeko eskatu diogunean, umil erantzun digu: «denek kolpea erraten dute, baina ez dakit...».

Urtea borobila doa gaztearentzat. Urrezko Aizkolarien Binakako Txapela irabazi baitu aurren, norekin eta attarekin. «Attarekin irabaztea bakarrik gauza ederra da, eta Maila Nagusia izanda, oraindik gehiago», dio semeak gustura. 20 urte bertzerik ez eta palmarese ederki osatzen ari da: Urrezko Aizkora, 2008an Garikoitz lehengusua-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Oihan Larretxea ederki moldatzen da aizkora.

kin binakako 23 urtez azpiko txapela jantzi zuen, eta urte berean, Nafarroako Hirugarren Mailakoa ere irabazi zuen. Eta azkena ekainaren 5ean lortu zuena, Urrezko Aizkora, 23 urtez azpikoen banakako txapela, Mugertzari II. ari irabazita. Udan ere plaza dezente pasatu be-

harko ditu beratarak, baina gustuko tokian, maldarik ez.

Zaila izanen du attaren markak haustea, «ezinezkoa» Oihanen hitzetan, baina baditu gogoia eta sasoia, eta nork daki. Aizkora gerra eman duela, hori behintzat segurua da.

FUTBOLA → BIGARREN MAILA

Baztango jubenilak lehen mailara bueltatuko dira 20 urte beranduago

Idoate eta Uzkuduni 22-15 irabazi zieten finalean

TTIPI-TTAPA | BAZTAN

Baztan futbol taldeko jubenilak bigarren mailako txapeldun izan dira eta horrenbertzez, lehen mailara bueltatuko dira 20 urteren buruan.

Aitzineko kanporaketan Aurora taldeari irabazi ondotik, Erriberri taldea izan du arerio azken kanporaketan. Erriberrin jokaturako partidari bina berdindu zuten eta azken lehia Elizondoko Giltxaurdin jokatu zuten. Lehenbiziko zati berdinduaren ondotik, bigarrenean hiru golekin zituzten baztandarrek, Javier Urrutia, Estebe Goñi eta



ARGAZKIA: ONDIKOL

Baztango jubenilak gustura, igoera ospatzen.

Xuban Eugik, hain zuzen.

Hala, Lauri Calvo eta Tomas Garmendiren mutilek, orain 20 urte gal-

dutako kategoria berreskuratu zuten: jubenilen lehen maila.

Hau izan zen Baztanek aurreko jubeniletan izan duen taldea, multzoko txapeldun eta lehen mailara igoera lortu duena: Miguel Javier Agerrea, Alejandro Arrondo, Mikel Azpiroz, Patxi Bengoetxea, Joseba Braña, Daniel Da Silva, Iraitz Erneta, Xuban Eugi, Tomas Garmendia, Xabier Gil, Andoni Goienetxe, Urtzi Gonzalez, Estebe Goñi, Xabier Iruetagoiena, Jorge Jaurregi, Agustin Juanbeltz, Joseba Martinez, Jon Moreno, Iñigo Pachecho, Egoitz Prim, Richard F. Quimbiambo, Andoni Salaberri, Mikel Unanua, Javier Urrutia, Ekaitz Urtizberea

FUTBOLA → LEHEN MAILAKO XXIII. TXAPELKETA

Beti Gazteko infantilak Nafarroako txapeldun

Final estuan 3-2 irabazi dio Tuterako Lurdes-i

TTIPI-TTAPA | LESAKA

Lesakako Beti Gazteko futbol taldeko infantilek Nafarroako lehen mailako XXIII. txapelketa irabazi dute. Ekainaren 5ean jokatu zuten finala

Beriainen Tuterako Lurdes taldearen kontra, eta lehia estuaren ondotik, 3-2 irabazi zuten.

Lesakarrak markagailuan gibeletik jarri baziren ere, Unai Telletxea igantziarraren bi golei eta Kevin Alongoren golari esker, garaipena eskuratu zuten. Kirolean beti gertatzen den bezala, Beti Gaztekoak pozez gainezka eta Lurdesekoak triste, kasik partida guzian aitzinetik izan eta azken orduan ihes egin baitziren garai penak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Beti Gazteko infantilak, kontent, txapeldunaren kopa eta dominak jaso ondotik.

Beti Gaztekoek txapeldunaren kopa eta dominak jaso zituzten. Joze Luis Altzugarai Zikiro eta Fred Ramos entre-

natzailearen erranetara, Gorka Sanjurjo, Andoni Arriola, Xabi Etxenike, Joseba Bertiz, Ibon Txoperena, Kevin Alongo, Aitor Alzugarai, Koldo Ordax, Jon Erro, Jon Ubiria, Unai Telletxea, Beñat Lopez, Ander Legasa, Bixen Telletxea, Joel

Oronoz eta Imanol Iturria aritu ziren. Beñat Abuin, Iñigo Azkarate, Bittor Etxabide, Xabier Etxegarai, Xuban Larretxea, Jon Olaizola eta Asier Sanchez ere aritu dira Beti Gazteko infantilen taldean, denboraldi bikain honetan.

ekainak 24 - uztailak 7

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58**Bestak**

DONEZTEBE | 2010.06.29

San Pedro egunean Trapatan eta bertze dantzak

San Pedro bestak ospatuko dituzte Donezteben ekainaren 28tik uztailaren 4ra. Egun handian Trapatan eta bertze dantzak eskainiko dituzte.

Tailerrak

ELIZONDO | 2010.06.29/07.09

Haurrendako margoketa tailerra Javier Zigaren omenez

Ekainaren 29tik uztailaren 9ra margoketa tailerra eskainiko dute Museo Etnografikoan Eneko Perez eta Sonia Ilzarbek 5-8 eta eta 8-14 urteko neska-mutikoei.

Lehiaketak

LEITZA | 2010.07.16 arte

Korto lehiaketa antolatu du Atekabeltza Gaztetxeak

Uztailaren 16ra arte, hamabost minutu baino laburragoak diren kortoak aurkezten ahal dira, Atekabeltza Gaztetxeak lehen aldiz antolatu duen lehiaketan.

Ekainaren 28tik uztailaren 4ra San Pedro bestak. Xehetasunak 520. alean.

SENPERE

Herriko bestak

Ekainaren 25etik 29ra Senpereko bestak. Xehetasunak 48. orrian.

ERRATZU

San Pedro bestak

Ekainaren 28tik uztailaren 3ra San Pedro bestak. Xehetasunak 520. alean.

ARESO

San Pedro bestak

Ekainaren 25etik 27ra San Pedro bestak.

LESAKA

San Fermin bestak

Uztailaren 2tik 11ra Sanferminak. Xehetasunak gehigarrian.

AZPILKUETA

San Fermin bestak

Uztailaren 6tik 10era Sanferminak. Xehetasunak 42. orrian.

Tailerrak

ELIZONDO

Javier Zigaren omenez haurrendako tailerra

Ekainaren 29tik uztailaren 9ra asteartetik ortziralerara egingen da tailerra Baztango Museo Etnografikoan, 10:30etik 11:15era (5-8 urtekoentzat) eta 11:30etik 13:15era (8-14 urtekoentzat). Irakasleak Eneko Perez eta Sonia Ilzarbe izanen dira. Izen-ematea Arizkunenean, 948 581279 telefonoan.

Lasterketak

DONEZTEBE

XXXII. Herri Krosa igandean

Ekainaren 27an egi-

Erakusketak

ELIZONDO

'Enredando sombras' erakusketa

Ekainaren 25etik uztailaren 17ra Diana Iniestaren *Enredando sombras* margo, marrazki eta argazki erakusketa Arizkunenean. Ekainaren 25ean, 19:00etan egingen da inaugurazioa, Artesal-da batekin.

URDAZUBI

Euskal pinturaren 50 urte erakusketa

2011ko urtarilaren 2ra arte ikusgai izanen dira Urdazubiko monastegiko klaustroan gaur egungo euskal margolari eta eskultore garrantzitsuenen 300 artelan. As-teazkenetik ortziralerara 14:00etatik 18:30era. Larunbat, igande, besta eta opor egunean 11:00etatik 19:00etara.

Ospakizunak

LESAKA

Sanjuan bezperan euskararen alde

Ekainaren 23an euskararen erabilera sus-

tatzeko antolatutako ekitaldia: kalejira, etxeren izenak daramazkiten txartelak jartzea eta komentuko zelaian jaialdia.

Kiroldegiko Bazkidearen Eguna

Ekainaren 26an Udal kiroldegiko Bazkidearen Eguna ospatuko da hirugarren urtez. Egun osoan izanen dira ekitaldiak: goizean haurrendako jokuak, helduentzako triatloia, bazkaria, *spinning* klasa, filma...

LEITZA

Sanjuan bezperan herri afaria

Ekainaren 23an herri afaria egingen da plazan 20:00etan umore dotorean eta ondoren Soltizioko suak.

AURTITZ

Sanjuan bezpera larunbatean

Ekainaren 26an egingen dute Sanjuan bezperako ospakizuna. Arratsaldean trikitilariak itzulua egingen dute eta ondotik afaria.

Bestak

ARIZKUN

San Juan bestak

Ekainaren 23tik 26ra Sanjuan bestak. Xehetasun gehiago 520. alean.

SALDIAS

San Juan bestak

Ekainaren 23tik 27ra Sanjuan bestak. Xehetasun gehiago 520. alean.

DONEZTEBE

San Pedro bestak

PROPOSAMENA

LESAKA

Zubigainekoa eta bertze hainbat ekitaldi Sanferminetan

Zubigainekoarengatik dira ezagun Lesakako Sanferminak; peñen jautsieragatik, ortzirala eta larunbat arratseko jende oldearengatik... Baina uztailaren 2tik 11ra bertze hainbat ekitaldi izanen dira, bertara hurbiltzen den guziari ongi pasatzeko aukera eskainiz: dantzak, tanborradak, bertiztuak, bertsoak, musika... Ez galdu!



nen da Erreka elkarte-
ak 32. urtez antolatuta-
ko herri lasterketa.

Lehiaketak

BAZTAN

Bertan elkartaren II. Argazki lehiaketa

Ekainaren 30a arte
aurkezten ahal dira
Bertan merkatarien el-
karteak antolatutako
Baztango ingurumena
eta paisaiak, herriak
eta herritarrak gaiari
buruzko argazki lehia-
ketarako lanak.

LESAKA

Beti Gazte elkartaren Argazki lehiaketa

Urriaren 30a arte
aurkezten ahal dira
Beti Gazte elkarteak
bere 70. urteurrena
dela eta antolatu duen
argazki lehiaketarako
lanak. Kirolarekin,
mendiarekin eta natu-
rarekin zerikusia duten
argazkiak onartuko
dira.

LEITZA

Korto lehiaketa Atekabeltzan

Uztailaren 16a arte
aurkezten ahal dira
Atekabeltza Gaztetxe-
ak lehen aldiz antolatu
duen korto lehiaketa-
rako lanak. Xehetasu-
nak 40. orrian.

Mendi ateraldiak

LESAKA

Hildako mendizaleen oroimenez Agiñara

Ekainaren 27an hil-
dako mendizaleen
oroimenez Agiñara
mendi irteera antolatu
du Beti Gaztek. Irtee-
ra: 08:00etan Plaza
Zaharrean.

Gertaera guztiak
ikusteko, begiratu:
www.ttipi.net
(agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Jauzika

Bixente SERRANO IZKO

Pamiela, 2010

Jauzika pentsatzen dugu. Oroitzapenetatik da-
tozkigun edo oraintxe bertan gurutzatzen zaiz-
kigun sentsazio horiek, izter hark, begi kliska ho-
nek, haserre oihu horrek, hotzikara batek..., edo-
zein hutsalkeriak erakartzen du gure arreta eta txin-
part bat hasten da jauzika geure burmuinean zain-
konexio batetik bertara. Burutazio horietako ba-
ti, mintzo bihurtu nahi dugunean soilik ematen dio-
gu egitura sintaktiko ageriko edo ezkutu bat, segi-
da logiko arrazional edo senezko bat, hala nolako
biribiltasuna, landuagoa ala zakarragoa. Eta kan-
poruntz gara dezakegu burutazioa, luzatu egin eta
diskurtso bat eratuz, edo barneruntz bil dezakegu,
konprimitu eta halako bitxikeria bat, aforismo bat,
haiku bat, apunte kitzigarri bat, gauzatuz: testutxo
bat. Azken horixe dugu liburu honetan, testu sol-
teak, azare joko baten kapritxoak sortuak, baina
orobat diskurtso oso baten zatiak dira, diskurtso
sozio-politiko-kultural bat osatzen duten tesela
multzo bat.

Musika



Noa

ESNE BELTZA

Baga Biga, 2010

Aniztasuna. Zaila da bertze hitzik aukeratzea.
Aniztasuna doinu eta erritmoetan. Aniztasuna
musika estiloetan, kolaborazioetan eta grabaketa
lekuetan. *Noa* izenburua du Esne Beltzaren biga-
rren lanak (Baga-Biga), eta munduko hamaika txo-
kotan grabatu dute, 2009an eta 2010ean: Jamai-
kan, Libanon, Japonian, Bartzelonan, Zarautzen,
Irunen, Ereñotzun... Kolaboratzaileen zerrendan do-
zenaka musikari ageri dira, bai Euskal Herrikoak
–Oskar Benas (gitarra), Gorka Urbizu (ahotsa), Xa-
bier Azkarate (perkusioak), Oreka TX (txalaparta)...–,
bai bertze herrialdeetakoak –Cinderella (Jamaika,
ahotsa), Clive Hunt (Jamaika, moldaketak), Flavio
(Italia, ahotsa), Yage (Japonia, ahotsa)...–. Made in
Euskal Herria 2008an kaleraturiko estreinakoare-
kin zabalduetako bidea sendotu du Xabi Solanok gi-
datzen duen taldeak. Iban Zugarramurdi arantz-
arrak batera eta Aitor Zabaleta leitzarrak baxua jo-
tzen dute taldean.

Internet




Euskal diasporaz eta
kulturaz webgunea

EUSKALKULTURA.COM

Euskal diaspora eta kulturaz espezialdutako bu-
letin eta webgunea da www.euskalkultura.com,
Euskal Herriaren eta munduan barreiatutako eus-
kal komunitateen arteko zubilana egitearren sortu
eta garatua 2001ean. Diasporan jaio edota bertan
lotura sendoak dauzkan jende talde txiki batek abia-
razitako ekimena da, ikusirik gero eta interkonek-
tatuagoa eta globalizatuagoa den mundu honetan
euskal kulturak behar dituela eskuratu tresna eta
lanabes propioak bere buruaren berri normaltasu-
nez emateko eta informazio eta komunikazio alo-
rreko ahalegin horrek behar dituela bildu zazpi
probintziak ez ezik munduan zehar gure kultura eta
identitatearen aterkipean lanean ari diren euskal
komunitateak, eta Diasporako euskaldunak, aman-
komuneko euskal ondare, kultura eta erkidegoari
egiten dizkieten ekarpenak.

Nire aukera



Juan TELLETXEA
Erreka Elkarteko presidentea

«Kirolean ari ez banaiz, kirola ikustea gustatzen zait»

Goiz-arratsaldeko Gerreleboan Made-
ras Zabalan langile,
Erreka Elkarteko presi-
dente eta alebinen en-
trenatzaile, aizkolari, as-
teburuetan laxoa txap-
elketan... Ez du asti
libre sobera izaten Ju-
an Telletxea donezte-
barrak eta halakoetan
lasai egotea gustatzen
zaio. «Kirolean ari ez ba-
naiz kirola ikustea gus-
tatzen zait», dio. Erabat
libre izaten duenean,
berriz, «lagunartean
bazkari-afariren bat egin
eta kartetan partidaren
bat jokatzeko» gustatzen
zaio, baita «neskalagu-
narekin afaldu eta lasai
egotea» ere. Beraz, as-
tebururako plan egokia
horrela antolatuko luke:
«larunbatean kirol pix-
ka bat egin edo ikusi,
gauez neskalagunare-
kin edo lagunekin afal-
du eta igandean egun-
pasa lasaieren bat». Kan-
pora ateratzeko ohitu-
ra handirik ez du opo-
rretan, «orain arte aizko-
ra txapelketetan atera
izan naiz eta horiek udan
izaten dira». Halere, Me-
xikora lagun baten ez-
kontzara egin zuen ha-
mar eguneko bidaiaz
oroitzapen ona dauka.

ETXEBIZITZAK
salgai

DONEZTEBE. Eguzkie-der kalean -tailer inguru-, 2. eskuko kalefakziodun pisua salgai. 3 logela, bainugela, egongela eta trastelekua. 27.000.000pzta (163.000 euro). Garajea aukeran. ☎650 264156.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

BERA. 80 m²ko pisua salgai. 3 gela, bainugela, sukaldea, egongela eta trastelekua. Berritua. Gas naturala eta berogailua. ☎657 715243.

ETXALAR. Lizaietako parajea zaharberritze-ko borda salgai, lur eremuarekin. ☎661 121540.

LEGASA. 90 m²ko pisua salgai. 3 logela, bainugela, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Berritua. Prezio negoziagarria. ☎650 729639.

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

ELIZONDO. Erlategi Plazan pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Trastelekua eta garaje plazarekin. ☎646 144895.

ERRATZU. Etxebizitza salgai. ☎944 572184/652 779210.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK
errentan eman

IRUÑA. Pisua errentan emateko. Nafarroako Unibertsitate Publikotik 5 minutura. 3 logela lau lagunentzat. ☎630 045413.

DONEZTEBE. Pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela haundia. Gela guztiek kanpora ematen dute. ☎699 798207.

BERA. Pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. Gela guztiek kanpora ematen dute. Igogailuarekin. ☎608 586239 (arratsaldean eta gauez).

UHARTE (Iruña). Apartamentua errentan emateko. Mobleztatua eta estrenatu gabea. ☎650 599085 (arratsaldean).

DONEZTEBE. Zazpigerutze plazan 115m²ko pi-

sua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreina-tu gabea. ☎630 948271.

ELIZONDO. Braulio Iriarte Karrikan, pisua errentan emateko. 3 logela eta berogailuarekin. ☎676 707620.

LESAKA. Bi lagunentzako apartamentua errentan emateko. Mobleztatua. ☎675 714360.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

LESAKA. 80 m²ko lokal komertziala salgai. Bittiria kalean, Aliprox-en ondoan. ☎617 936622.

LANA
eskaintzak

Neska bat asteburuetan lanean ariko litzateke. ☎620 196246.

Emakume bat edozein lanetan ariko litzateke. Adineko pertsonak zain -

tzen edo etxeko lanak egiten, edota ostatu batean garbitasunean. Esperientziaduna. ☎687 335413.

Gizon bat lanean ariko litzateke. Ahal dela Bortzirietan. ☎616 759859.

Ama euskaldun bat arratsaldean garbiketan edo bertze edozein lanean ariko litzateke. Ahal dela Bortzirietan. ☎650 407978.

Emakume bat jostungintzan, haurrak zaintzen edo etxeak garbitzen ariko litzake. ☎618 916559.

LANA
eskariak

ETXALAR. Herriko Ostatuan jatetxerako zerbitzari euskalduna behar da. ☎948 635450.

ZUGARRAMURDI. Jatetxe batean sukaldaria behar da urte osorako. ☎(0033) 559 542131.

Eskualdean aritzeko esperientziadun **zurgina** behar da. ☎607 890923.

MOTORRAK
salgai

Nissan note 1.4 autoa salgai. Erdiberria. 38.000 km. ABS, A/C. Prezioa: 7.000 euro. ☎629 656542.

Mercedes c220cdi, 150 CV sport coupe salgai, 2006koa, 75.000km. Iruñeko Mercedes etxean erosia eta errebisio guztiak bertan eginak. Egoera ezin hobean. ☎699 122815 / 600 699266.



Golf TDI salgai, egoera onean. ☎650 064912.

**MOTORRAK**
tailerrak

MENDAU MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta dieselak)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(ekainaren 4tik 11ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA****Zerrikumea**

(19 kilo): 42,00 € (=)

Zerri gizena

1,238 € kilo. (+0,033)

Zerramak:

0,440€ Kg/bizirik. (+0,020)

**BEHIKIA****Aretze gizenak:**

Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,80 (-0,01)

1.koa 3,49 (=)

2.koa 2,96 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 3,87 (-0,01)

1.koa 3,60 (=)

2.koa 3,13 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruxak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,70/2,80

Zaldi-behorrak: 1,55/1,69

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,70/6,40

8-10 kilokoak: 4,60/4,90

GIDARIA erakunde publikoetan dokumentazioa eta baluak banatzeko. Lanegun etengabea Lanpostu finkoak. 677467988	HERRI LANETAN aritzeko mantenimendurako langileak, lorezainak, gidariak, zaindariak, etab. behar dira. Lanegun etengabea. 666485021	ZAINDARIAK zentro publikotarako. Titulua ez da beharrezkoa. Lanegun etengabea. 610719782	HARRERAGILE TELEFONISTAK behar dira egoitza publikoetan lan egiteko. Lanegun etengabea. 607254240	SUKALDEKO LAGUNTZAILEAK eta sukaldariak Erakunde Publikoetan lan egiteko. Lanegun etengabea. Lanpostu finkoak. 607254941
---	--	---	--	--

ANIMALIAK

oparitu

Hilabete bateko **hiru ardi zakurkume** oparitze-ko. 948 510224.

ANIMALIAK

salerosketak

Basurde ehizarako **lau zakurkume** salgai. Hilabete batekoak. 686 635304.

Urte bat eta erdiko **akerra** salgai. 679 892622.

Txerri vietnamitak salgai, urte eta erdikoak. Emea abuztu aldera umatuko da. Biak 150 eurotan, eta arra bakarrik 50

eurotan. 645 013213.

Setter ingeles arrazako **zakurkumeak** salgai. Nahi bada pedigiarekin. 670 251632.

DENETARIK

salerosketak

Behien **txuleta zintak** eta **solomilloak** salgai. Oso haragi ona eta prezio onean. 659 751411.

2,90 metroko luzera duten **255 arkazi pikete** salgai. Ederrak. 948 634120.

Kanpin karroa salgai. Imaz-Puma 3 markakoa. Egoera onean, gutxi era-

bilia. Bi logela (1,35ko zabalera) eta beste bat (1,20koa) logela/jantokia izan daitekeena, mahaia eta bankuekin. Lau pertsona eroso egoteko modua. Aurreko gela bat ere (abantzea) lortzen ahal zaio (3,90x1,20). Muntatzeko erraza. Karroa fibrazkoa. 550 euro. 635 477949.

Neska gazteak baratzean aritzeko gogoarekin **erreminta bila** dabilta. Sobran badituzu eta birziklatzeko intentzioarekin bazabiltza, deitu zenbaki hauetako batera. 652 708901 edo 667 218632.

Belar idorren boloak

SANTESTEBAN Tailerrak

RENAULT

HERNANI GRAN TOUR BUSINESS 1.600 110 CV
2007koa - 70.000 km

TRAFFIC 1.900 110 CV
2007koa - 44.000 km

TRAFFIC 1.900 110 CV
2008koa - 58.000 km

LAGUNA II AUTHENTIQUE 1.900 110 CV
2007koa - 44.000 km

ETA GAINERA
Rangoo Express Desitiga: 1.900 CV
Rangoo Express Desitiga: 2.800 CV
Citroen Naxos Familiaris 1.900 CV
Citroen Naxos 1.900 CV
Rangoo Express 1.500 CV

DONETEBEKO RENAULT-en KOTXE IA BERRIETAN SEKULAKO ESKAINTZAK

salgai. 660 393436.

Antigualeko altzariak salgai. 948 637930.

Surako **haritz egurra** salgai. Kamioian etxera eramaten da. 676 264212.

DENDA GOYA

UZTAILEAN LANGILEA JUBILATZEN DELAKO

DENDA TTIKITU BEHAR DUGU

%50 DESKONTUAK
eta %2ko deskontua Club mas por ti txartelarekin

GURE TXOLLOEN TXOKOA
Gaitzak - Gonak - Jantziak
Kamisetak - Burdin tresneriak
Txubaskeroak - Txamarrak
Altzoriak - Blusak - Batak...

BETIKO PRODUKTUAK
Kortinen konfekzioa
Lanerako arropa - Toallak
Mandak - Mantak
Edredoiak - Nordikoak
Nordikoen fundak
Kapeluak - Euskal arropa
Lanparak - Menajea
Oparitzeko detaileak

EZ GALDU AUKERA HAU ETA ZATOZ GURE TXOLLOAK BILATZERA ZERBITZU PERTSONALIZATUA, KALITATE ETA PREZIO EZIN HOBEAN

KONPROMISORIK GABE, ZATOZ. EZ ZARA DAMUTUKO

Altzate, 5 - BERA
T. 948 630 083

Zure laguntza eskertzeko, boltsa edo hau opari izanen duzu!

Ttipi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!

proiektu zenbakia:

15.996

Den-dena eskura eduki nahi baduzu, **TELEFONO GIDA** honetan aurkituko dituzu inguruotako telefono guztiak: ofizialeak, komertzioak, lantegi eta zerbitzuak, partikularren telefonoak... Denak, informazio osoa eta goitik behera gaurkotua, erabiltzeko eta gauzak bilatzeko errexago antolatua.

Laister

ttipi-ttapa aldiizkariarekin batera TELEFONO GIDA 2010

TELEFONO GIDA 2010
HUTSIA PERTSONALIZATUA
LANTZARAKO ERABILTZETAKO

RING RING RING

Inguru honetako etxe guztietan zure negozioaren berri izatea nahi baduzu, jarraituz gurekin harremanetan eta milaka pertsonen irakurriko dute zure amuntzina.

948 68 54 58
publi@ttipi.net

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez



EKAITZ LOIARTE OTXANDORENA zubietarrak urteak bete ditu ekainean. Zorionak eta muxu handi bat Esther eta bere familia-rent partetik.



ENEKO SANZBERRO TELLETXEA etxalartarrak ekainaren 20an 10 urte bete ditu. Zorionak etxekoent partetik.



ANE TELLETXEA GALARREGI elizondarrak ekainaren 16an 5 urte bete ditu. Zorionak Xabier eta Enekoren partetik.



JON GASTEARENA IRISARRIK 6 urte beteko ditu ekainaren 29an. Zorionak bihotza eta aunitz urtez Etxalar eta Ezkurrako familia guziaren partetik.



Ekainaren 19an Uxue REKARTE ITURRIRIAK 5 urte bete ditu. Zorionak familia guziaren eta batez ere anaia Aimarreren partetik. Muxu handi bat!



ANTON IPARRAGIRRE ITURZAETAK urteak beteko ditu uztailaren 2an. Aunitz urtez etxeko guzien partetik. Muxu handi bat. Merendola noiz?



Aresoko NEREA eta LAIAK urteak bete dituzte ekainaren 14an eta 19an. Zorionak bie familiaren partetik, eta Nereari bigarren aldiz zorionak ezkontzagatik. Muxu bana!



MARKEL ZELAIETA BERASATEGI. Ekainaren 25ean gure moxolok urtea beteko du. Zorionak eta muxu handi bat familia guziaren partetik.



NAHIA LEKUONA SAN JUAN lesakarrak 6 urte bete ditu ekainaren 23an. Zorionak potxola eta muxu aunitz familia guziaren partetik.



NAHIA LEKUONA SAN JUAN lesakarrak 6 urte bete ditu ekainaren 23an. Aunitz urtez atta, ama eta familiaren partetik. Muxuak sorgintxo!



Sunbillako NEREA PETRIRENA GOROSTERRAZUK uztailaren 4an 34 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta ongi pasa eguna zure familia guziaren partetik, baina berexiki zure ilobak diren Iraide eta Garaineren partetik. Muxuk ixeba!



MIKEL eta BEÑAT PORTU BARINAGAREMENTERIA leitzarrek 2 urte beteko dituzte ekainaren 29an. Zorionak Lesakako familiaren partetik, bereziki Orti eta Lexuri lehengusuen partetik. Melon!



ANE eta IKER AGIRRETXE BIKONDOAK ekainaren 18an 7 urte eta uztailaren 1ean 5 urte beteko dituzte. Zorionak Lesakako familia guziaren partetik.



ANE eta IKER AGIRRETXE BIKONDOAK ekainaren 18an 7 urte eta uztailaren 1ean 5 urte beteko dituzte. Zorionak Elizondo eta Beartzungo familia guziaren partetik.



GOIURI, OLARIXU eta PERU URRRA YECORA lesakarrak 2 urte bete dituzte ekainaren 22an. Zorionak eta mila muxu jaso amaxo eta aitaxoren partetik.



OLARIXU, PERU eta GOIURI URRRA YECORA lesakarrak 2 urte bete dituzte ekainaren 22an. Zorionak zuen bizilagunen partetik! Muxutxu aunitz!!!



PERU, OLARIXU eta GOIURI URRRA YECORA 2 urte bete dituzte ekainaren 22an. Zorionak Bilboko senide guzien partetik.



GOIURI, OLARIXU eta PERU URRRA YECORA lesakarrak 2 urte bete dituzte ekainaren 22an. Zorionak familia guziaren partetik.



OLAIA OTXANDORENA PETRIRENA ekainaren 26an urtea beteko du. Zorionak eta muxu handi bat aita-xo eta amaxoren partetik.



BEÑAT eta MIKEL PORTU BARINAGAREMENTERIA leitzarrek 2 urte beteko dituzte ekainaren 29an. Aunitz urtez Lesakako aitaxi-amaxiren partetik.



Zorionak bikote! Heldu da uztailaren 3a, denontzat egun ederra, baina Harri-diko parejarentzat ezin hobea! Muxu handi bat!



Aunitz urtez hirukote! Ailegatu da zuen eguna! Hagitz ongi pasa eta berendu-afari goxo baten zain geldituko gara! Muxu handi bat! Kaxkarrak.



Sunbillako XUBAN eta ANE ZELAIETAK ekainaren 19an eta 29an 6 eta 3 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu bat familia guziaren partetik. Ongi pasa!



UXUE BIKONDO ARRETZEAK 3 urte beteko ditu ekainaren 29an. Zorionak aita, ama eta Aritzen partetik. Muxu handi bat!

Bidali ttipi-ttapa
herritik kanpo
bizi diren lagun
edo familiakoei

(0034) 948 63 54 58

Lasao

• egurrezko altzaria

Lasao Ind. - 20730 AZPEITIA • T. 943 15 11 82 • F. 943 15 10 98
informacion@lasao.com • www.lasao.com

Altzari bereziak, fabrikatik zuzenean, bitartekorik gabe



"Nafarroan estimatzen den altzaria"



ttipi-ttapa
FUNDAZIOAK

zure laguntza
behar du

eginzazu ttipi-ttaparen alde
proiektu zenbakia: 15.996

Eska ezazu ttipi-ttaparen proiektua
aukeratu izanaren frogagiria
Nafarroako Kutxaren zure bulegoan
eta ekar ezazu ttipi-ttapara 2010eko
abenduaren 30a baino lehen.

dagoeneko
715
LAGUNEK
egin dute
gure alde



*Poltza eder hau
izanen duzu
opari*

x gaure bezeroek
aukeratutako
x* proiektua **can**

TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

ttipi txartela

ttipi txartela

Asier Ibarra MAUBERNIE
57013648-2
11/2010
0002569

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ALDIZKARIA
MUSUTRUK

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonon

ZOZKETAK

ttipi txarteldun guztien artean
zozketatuko dira sari hauek

TTIPI SASKIA

TTIPI-TTAPAKO POLTSA

IZURDEA PUZZLEA

KROKO ETA LAGUNAK LIBURUA

TXAPELA BURUAN TA IBILI MUNDUAN

KAMISETA

PIRRITX ETA PORROTX

DVD

LIBURUA

LOTEA
KALOTXA (BERA)
OPARIAK ETA
OSAGARRIAK

ZORIONAK

* Hilabete bakoeko epea sariak biltzeko

KAMISETA 1
ONIN ART

www.oninart.com

2 LIBURU
EREIN

www.erein.com

2 SARRERA
DONOSTIAKO
AQUARIUMA

DESKONTUAK

Agara
kirolak
%5 kirolari kuletan

Amaia
ludi eta estilismo zentroa
%5 kosmetikan, %10 oparietan

MASTER
ALTZURI
%5 etxe-irresketan

BERAUTO
%5 errekanbiotzetan

bixkiak
%10eko deskontuak